# EUSKO-YAKINTZA TA ELERTIA

## ENDAK ETA YAKINTZA

GIZADIA, yatoŕiz bakaŕa izan aŕen, taldeetan bananduta agertzen da. Talde oneik endak dira, ta gorpuzkera, eta gogo-izakera bedagaŕak bata besteagandik bereizten ditu. Yakitunak, endaren ezaugaŕietzaz eztabaidetan, gizatzizti, izkuntza berezia, eŕioiturak eta edestia aitatzen ditue. Ezaugaŕi gustiok batera eskatu ba'lituez be, eusko abendeak, agiri gustiok buru auste andi barik erakutsiko leuskioez. Orixe dala-ta, eusko-abenda, abenda bakanik ba'da, bedegar eta bakana dala, yakitun gustiak ago batez autortzen dabe... *sasi-yakitun* banaken baŕiketari yaramon barik. Eta izakera berezitik egikera berezia, sortzen dalako, enda bakoitzak bere, bere izakera, oldoskera, bazkun, ertikera ta elertia izan oi ditu. Zeinki oneik izkuntzaz batean, endaren *gogoa* agertzen dabe, eta gogo berezia onen ezaugaŕi ta agerkai, enda bakoitzaren yakintza da. Eŕi gogoa ezagutzeko ba, eta beraa, eŕia bat dan lez ezagutzeko, yakintza ezagutu bear. Zio ori bide dala, gaurko edestilariak, eŕien azaleko gora-berai ainbeste begiratu barik, eŕien izakera azaltzeko, yakintza lenengo malan ipinten dabe. Endeŕiak baña euren eginbeaŕa beteko ba'dabe, auŕera eta goirantz alegiñak zuzendu bear ditue. Gero ta yakintza aberatsagora yo bear dau. Eŕia gorputz biziaren antzeko da. Eta gorputz biziaren baŕengo legea, bere izateari dagokion osotasunera eltzea dan antzera, endeŕien baŕengo legea, yakintza osotasunera al daben neuŕiz eltzeko alegin egitea da. Batzuetan, eginbear ori ez betetzea arduragabekeritik batzuetan sortzen da, eta orduan, eŕi ori endekatuta, ez yakinaz eta bere burua ez ezagutzez, endeŕi danez notintasuna galtzen dau. Eta bere notintasuna galtzen daben eŕia ilda dagola esan geinke. Beste batzuetan inguruko eŕiak, indarkeriz eŕi ori azpiratzea yasoten da, eta bustaŕi ori astintzeko alegiñak-alegin egiten ezpaditu, gogoz be iñoren yopu izango da, eta iñoren yopu etsita dagon eŕiak, notintasuna galduta daukon ezaugaŕi da. Baña indaŕez azpiratuta bizi aŕen, bere yakintzari eutsi ta osotuten alegintzen dan artean, endeŕia bere buruaren yabe da, gogo-azkatasuna es dau galdu-ta.

## EUSKO-ABENDA TA YAKINTZA

Egi onein argiz Eusko-eŕiari begiratu dayogun. Eusko-abendeŕiak izakera bedegar eta berezia dabela, len esan dogunez, yakitun gustiak autortzen dabe. Abenda au Europa'ko zaŕena dala diñoskue, abenda onen izkuntza, gure Euskera, ez yakiñez ezetsia, izkuntza bakan, abereratz eta orain arte ezagutzen diranakaz erkatu ezkero, idazle yakitun baten esan dabenez, girontxo itxusi ta kaden artean, eŕaldoi baten antzera agertzen da. Eŕi onen eresi ta abestiak, benetasun eta oitura yaŕaigaŕiak, eŕi onen yolasak, eta abesti bizi dirudien, dantza ta ezpata-dantzak batez be, abenda onen eŕi-lege ereduak eta abar, eusko eŕiaren izakera berezi ta yakintzaren agerkai bardingabeak dirala ez dot uste iñok ukatu leikenik.

Baña batez be, euskera, geure izkuntza, bakaŕik naiko litzake, gure notintasun eta yakintzaren agiritzat. Kampion yakitun eta idazle bikañak esan dabenez ba, « Eŕi baten iztegia bere ondasuntegia da. Ondasuntegi oŕetan gordetzen dira, eŕiak dakiana, eŕiak sentidu ta nai dabena, bere gogoko naikunak, bere adimeneko argiak bepe « neu » edo notintasunaren izatea » (*Origenes del Pueblo Euskaldún,* II idazt, 108'n ing.) Eta nor da, Euskeraren, itzen sakontasun, eta iñori ostu bako aberastasuna ukatu leikenik ? Eta idazle berberak diñon lez, « Zer itz-egiten dozun esan egidazu, eta nor zaran, zer dakizun, eta zer al dozun esango dautzut », arautzat artzen ba'dogu, eusko-eŕiaren yakintza yosi, sakon eta aberatsa nok ukatu ?...

## YAKINTZAZALEON EGINBEAŔA

Ori olan dalarik, yakintzaz daukoguzan eginbeaŕei begirakada bat emon dayoegun, Lenengoa yakintza ori albait ondoen ezagutzen alegintzea da. Ginonarentzat lenengo eginbear eta betikoa bere burua ezagutzen alegintzea dan lez, eŕi yakintzaz arduratzen danak berberorixe egin bear dau. Oin zer dan ondo yakiteko, len zer izan dan yakin bear. Eta oŕetarako, bere yatoŕia, abitza, edestia, eŕi-yakintza ta elertia ondo ezagutzen alegindu. Ori egin ezik gomutamena galdu dabenek antzekoak izango giñake ; baŕien baŕi dana ikasten asi bear, oar-irakaspen barik, eŕiaren gaste aldiko indar kemen eta egiteak ezagutu barik, eŕiaren okeŕak ezagutu barik lanean ekin bearko geunskio. Baña orduan, gure yakintza yauregia, Eusko- eŕiko, aŕobi sakonetatik, ataratako aŕi landuz egin beaŕean, « zementozkoak » bear ba'da urtengo leuskigu, eta geure notintasunaren agerkai izateko asko bearko leuke. Lenen ba, gure asabak zer

ziran eta zer egin eben ikusi daigun, zer garean eta zer egin bear dogun yakiteko. Eta ori albait ondoen, « apuŕak be bilduta, galdu ez daitezen ». Ori ez egitea bidegabekeri ta eskar-txaŕeko izatea izango litzake, bere asaben gauzai yaramonik egiten ez dautsen semearen antzera.

Bigaŕen eginbeaŕa baŕizkundea da. Eŕi-bizitza ba, beste edozein bizitza lez, etenbako baŕizkundean dago. Yakintzak beti goirantz, yo bear dau, gugatz ojaren antzera gero ta igali obeak emon bear ditu. Oŕetarako, iru gauza beintzat bear dira: *asi, ezi, ta esitu. Asteko,* yakintza zugatza, landu egin bear da, ondu ta yanaritu. Oŕetarako baŕiz, ondo ezagutzen alengindu bear gareala esan beaŕik be ez. *Eziteko* baŕiz, oartzen diran okeŕak zuzendu, kaltegaŕi yakozan kimuak mostu; eta erbesteko yakintzetik euntzoŕi antzera itsasi yakozan, eta bere izakeraz ondo alkartzen ez diran eta geigaŕiak sustarkatu. Eta azkenez, *esitu*, etsayak kalterik egin ez dayoen, eta gorputzean kalte egin leikioen koko galgaŕiak indargetu ez dayen.

## BAŔIZKUNDE BIDEA

Lengo gizaldietan, bat eta beste dala, itota lez egon dan Eusko-yakintza gaur baŕizkunde aldian dago. Eta beaŕeko lan onuratsua egiteko bidean. Oŕetan lankide izateko yayo da YAKINTZA aldizkingi eder au. Baña, baŕizkunde lan au zelan egin bear da?, itandu leike norbaitek. Nire eretxia, aintzat artzekoa ba'litz onantze. Eŕiagana makurtu, maitetu, aintzat artu, eskua emon eta gorago ya soten aleginduta. Beste gai batzuk alde batera itxita batez be, elertian ori egin bear da. Eŕi-yakintza, bere izatez yagokon osotasunera er yasoteko, umeen asikuntzan egiten dana egin bear. Umearen gaitasun eta utsak ezagutu bear ditugu, daukon on *gustia*, aintzat artu, obetuteko, eta oartzen doguzan akatz gustiak, *apurka* zuzentzen alegindu. Eta ez destañez, eta indaŕez maitasun eta eroapenez baño. Orixe nire ustez baŕizkundearen lana, elertian batez be. Eŕian oñak doguzala yokatu bear dogu, ez egazkiñean eŕi gañetik jira-biraka ibil̃ita, eustazpibako lana izango litzake ta.

Zeregin onetan baña, asmorik zuzenenagaz, yakiña, etsai izan leiteken, baŕizale *keri ari*, abegi onegia egiten dautsobula autortu bear dogu. Eta ori aitzen da, maitasun utsak bultzatzen gaituanean, muga ertzak igarotea eŕez izan oi da-ta. Maitasuna epebakoa izaten da, gustia batera nai izaten dau. Baña ama batek ume gozoa osatzeko osakaya-osakayen gañean emoten asten danean, osatu beaŕean kalte egiten dautsola be egia. Gustia geuk egin bear dogunik ez dogu uste izan bear, ori eziña da-ta.

Asmo ta elbururik gorengoa, gauza bat da, eta epebakokeria beste bat. Emen italitaŕak esaten dabena, astiro ibiḹi ta uŕin yoan, egin bear da. Buruz ondo dagozan asko bein-beinean egitez egoki ez dira izaten, eta kaltegaŕi ezpadira gaitz erdi.

Itz baten, elertian, baŕizalekeriz, gauza on diran asko, ez dira aintzat artzen, eta beste asko, uste onez, baztertu egiten ditugu. Baŕizale*tasuna*, arautzat artu ezkero, ostera, lengo ona, oingo onaz alkartzen dogu, eta lengo txaŕa eta oingoa bastertu, etorkizuneko yakintza osoagoari bideak gertauaz. Diñodana gora bera ez uste, egazkiñean ibilten zale diranai txalorik ez dautsodala yoko, oŕeik, edertietan norañoigon geinken irakasten dauskue, baña gustiok bide oŕetara ezin yo geinken bitartean, txalotu daiguzan, eta bide apalagoetatik yaŕaitu daigun, eŕia lagun degula. Lengoen oñatzei orpoz-orpo yaŕaitu beaŕik ez daukogu, baŕizalekeriari be ez. Bitarteko bideari eroso ta onuratsuen deritzogu. Baña oŕi baño be obe to, bakoitzak bere maḹan, azkatasunez, nai ba da, baña maitasun bakaŕen araupean *gustiok* lan egitea... Garaitz-bidea orixe izango litzake.

## EUSKO YAKINTZA TA ELERTIA

Geyegi luzetu barik amaitu daigun. Elertia eŕi-yakintzaren una da. Elertian, eŕiaren adimen, biotz eta irudimena agertzen dira, beraz eŕi-gogoaren agerpenik edeŕentzat etsi geinke. Zineskera, edesti, oitura, yolas eta abestiak, eŕi-lur edertasunak, gai itun eta pozgaŕiak, Yaungoikoa'k eŕi baten biotzean erein dituan aberastasun gustiak, elertiz txukunduta txorta eder bat egin daigun. Lenen, Eusko luŕa, estu ta lakar etsita edo, auzoko landatara lanean yoan diran aŕoai, eusko-yakintza txorta au, erakutsi ta esateko : « Or dozuez zuok ezetsi dozuen, eŕi onen gogo-edertasunak ; nai ba'dozue erkatu beste eŕi-yakintza batzukaz, eta ia, Eusko-eŕiak elertirik ez dabela esaten geyago asartzen zarien.» Eta gero, ondorengook, yarauntzi lez, yakintza baŕiztu eta yoria, atzeŕi kutsuz, nastubakoa, eskintzeko aldia eldu daitenean, aldi obeak ikusteko zoria izango daben euskotaŕak, eskar onez eta egiz esan al izan dayela: « Gure asabak euskotar seme zintsoak izan ziran, antxiñako asabakaz lotuten zituan uŕezko estuntza ez eben ausi, izenaren yabe izan ziran, eusko-gogoak eukon gora-nayari, egokiro erantzun eutsen ; geu be, euren ondorengo duin izateko, yakintza txorta eder au, lora eder eta usaintsuenakaz osotuten alegindu gaitezan...»

Orixe abeŕi-maitasunez lan egiten dabenentzat saririk onena...

MANTEROLA'TAR GABIREL

# EUSKO-YAKINTZA TA ELERTIA

## ENDAK ETA YAKINTZA

GIZADIA, yatoŕiz bakaŕa izan aŕen, taldeetan bananduta agertzen da. Talde oneik endak dira, ta gorpuzkera, eta gogo-izakera bedagaŕak bata besteagandik bereizten ditu. Yakitunak, endaren ezaugaŕietzaz eztabaidetan, gizatzizti, izkuntza berezia, eŕioiturak eta edestia aitatzen ditue. Ezaugaŕi gustiok batera eskatu ba'lituez be, eusko abendeak, agiri gustiok buru auste andi barik erakutsiko leuskioez. Orixe dala-ta, eusko-abenda, abenda bakanik ba'da, bedegar eta bakana dala, yakitun gustiak ago batez autortzen dabe... *sasi-yakitun* banaken baŕiketari yaramon barik. Eta izakera berezitik egikera berezia, sortzen dalako, enda bakoitzak bere, bere izakera, oldoskera, bazkun, ertikera ta elertia izan oi ditu. Zeinki oneik izkuntzaz batean, endaren *gogoa* agertzen dabe, eta gogo berezia onen ezaugaŕi ta agerkai, enda bakoitzaren yakintza da. Eŕi gogoa ezagutzeko ba, eta beraa, eŕia bat dan lez ezagutzeko, yakintza ezagutu bear. Zio ori bide dala, gaurko edestilariak, eŕien azaleko gora-berai ainbeste begiratu barik, eŕien izakera azaltzeko, yakintza lenengo maḹan ipinten dabe. Endeŕiak baña euren eginbeaŕa beteko ba'dabe, auŕera eta goirantz alegiñak zuzendu bear ditue. Gero ta yakintza aberatsagora yo bear dau. Eŕia gorputz biziaren antzeko da. Eta gorputz biziaren baŕengo legea, bere izateari dagokion osotasunera eltzea dan antzera, endeŕien baŕengo legea, yakintza osotasunera al daben neuŕiz eltzeko alegin egitea da. Batzuetan, eginbear ori ez betetzea arduragabekeritik batzuetan sortzen da, eta orduan, eŕi ori endekatuta, ez yakinaz eta bere burua ez ezagutzez, endeŕi danez notintasuna galtzen dau. Eta bere notintasuna galtzen daben eŕia ilda dagola esan geinke. Beste batzuetan inguruko eŕiak, indarkeriz eŕi ori azpiratzea yasoten da, eta bustaŕi ori astintzeko alegiñak-alegin egiten ezpaditu, gogoz be iñoren yopu izango da, eta iñoren yopu etsita dagon eŕiak, notintasuna galduta daukon ezaugaŕi da. Baña indaŕez azpiratuta bizi aŕen, bere yakintzari eutsi ta osotuten alegintzen dan artean, endeŕia bere buruaren yabe da, gogo-azkatasuna es dau galdu-ta.

## EUSKO-ABENDA TA YAKINTZA

Egi onein argiz Eusko-eřiari begiratu dayogun. Eusko-abendeřiak izakera bedegar eta berezia dabela, len esan dogunez, yakitun gustiak autortzen dabe. Abenda au Europa'ko zařena dala diñoskue, abenda onen izkuntza, gure Euskera, ez yakiñez ezetsia, izkuntza bakan, abereratz eta orain arte ezagutzen diranakaz erkatu ezkero, idazle yakitun baten esan dabenez, girontxo itxusi ta kaden artean, eřaldoi baten antzera agertzen da. Eři onen eresi ta abestiak, benetasun eta oitura yařaigařiak, eři onen yolasak, eta abesti bizi dirudien, dantza ta ezpatadantzak batez be, abenda onen eři-lege ereduak eta abar, eusko eřiaren izakera berezi ta yakintzaren agerkai bardingabeak dirala ez dot uste iñok ukatu leikenik.

Baña batez be, euskera, geure izkuntza, bakařik naiko litzake, gure notintasun eta yakintzaren agiritzat. Kampion yakitun eta idazle bikañak esan dabenez ba, « Eři baten iztegia bere ondasuntegia da. Ondasuntegi ořetan gordetzen dira, eřiak dakiana, eřiak sentidu ta nai dabena, bere gogoko naikunak, bere adimeneko argiak bepe «neu» edo notintasunaren izatea » (*Origenes del Pueblo Euskaldún*, II idazt, 108'n ing.) Eta nor da, Euskeraren, itzen sakontasun, eta iñori ostu bako aberastasuna ukatu leikenik ? Eta idazle berberak diñon lez, « Zer itz-egiten dozun esan egidazu, eta nor zaran, zer dakizun, eta zer al dozun esango dautzut », arautzat artzen ba'dogu, eusko-eřiaren yakintza yosi, sakon eta aberatsa nok ukatu ?...

## YAKINTZAZALEON EGINBEAŘA

Ori olan dalarik, yakintzaz daukoguzan eginbeařei begirakada bat emon dayoegun, Lenengoa yakintza ori albait ondoen ezagutzen alegintzea da. Ginonarentzat lenengo eginbear eta betikoa bere burua ezagutzen alegintzea dan lez, eři yakintzaz arduratzen danak berberorixe egin bear dau. Oin zer dan ondo yakiteko, len zer izan dan yakin bear. Eta ořetarako, bere yatořia, abitza, edestia, eři-yakintza ta elertia ondo ezagutzen alegindu. Ori egin ezik gomutamena galdu dabenek antzekoak izango giñake ; bařien baři dana ikasten asi bear, oar-irakaspen barik, eřiaren gaste aldiko indar kemen eta egiteak ezagutu barik, eřiaren okeřak ezagutu barik lanean ekin bearko geunskio. Baña orduan, gure yakintza yauregia, Eusko- eřiko, ařobi sakonetatik, atarako aři landuz egin beařean, « zementozkoak » bear ba'da urtengo leuskigu, eta geure notintasunaren agerkai izateko asko bearko leuke. Lenen ba, gure asabak zer

ziran eta zer egin eben ikusi daigun, zer garean eta zer egin bear dogun yakiteko. Eta ori albait ondoen, « apuŕak be bilduta, galdu ez daitezen ». Ori ez egitea bidegabekeri ta eskar-txaŕeko izatea izango litzake, bere asaben gauzai yaramonik egiten ez dautsen semearen antzera.

Bigaŕen eginbeaŕa baŕizkundea da. Eŕi-bizitza ba, beste edozein bizitza lez, etenbako baŕizkundean dago. Yakintzak beti goirantz, yo bear dau, gugatz ojaren antzera gero ta igali obeak emon bear ditu. Oŕetarako, iru gauza beintzat bear dira: *asi, ezi, ta esitu*. *Asteko,* yakintza zugatza, landu egin bear da, ondu ta yanaritu. Oŕetarako baŕiz, ondo ezagutzen alengindu bear gareala esan beaŕik be ez. *Eziteko* baŕiz, oartzen diran okeŕak zuzendu, kaltegaŕi yakozan kimuak mostu; eta erbesteko yakintzetik euntzoŕi antzera itsasi yakozan, eta bere izakeraz ondo alkartzen ez diran eta geigaŕiak sustarkatu. Eta azkenez, *esitu*, etsayak kalterik egin ez dayoen, eta gorputzean kalte egin leikioen koko galgaŕiak indargetu ez dayen.

## BAŔIZKUNDE BIDEA

Lengo gizaldietan, bat eta beste dala, itota lez egon dan Eusko-yakintza gaur baŕizkunde aldian dago. Eta beaŕeko lan onuratsua egiteko bidean. Oŕetan lankide izateko yayo da YAKINTZA aldizkingi eder au. Baña, baŕizkunde lan au zelan egin bear da?, itandu leike norbaitek. Nire eretxia, aintzat artzekoa ba'litz onantze. Eŕiagana makurtu, maitetu, aintzat artu, eskua emon eta gorago ya soten aleginduta. Beste gai batzuk alde batera itxita batez be, elertian ori egin bear da. Eŕi-yakintza, bere izatez yagokon osotasunera er yasoteko, umeen asikuntzan egiten dana egin bear. Umearen gaitasun eta utsak ezagutu bear ditugu, daukon on *gustia,* aintzat artu, obetuteko, eta oartzen doguzan akatz gustiak, *apurka* zuzentzen alegindu. Eta ez destañez, eta indaŕez maitasun eta eroapenez baño. Orixe nire ustez baŕizkundearen lana, elertian batez be. Eŕian oñak doguzala yokatu bear dogu, ez egazkiñean eŕi gañetik jira-biraka ibiĺita, eustazpibako lana izango litzake ta.

Zeregin onetan baña, asmorik zuzenenagaz, yakiña, etsai izan leiteken, baŕizale *keri ari*, abegi onegia egiten dautsobula autortu bear dogu. Eta ori aitzen da, maitasun utsak bultzatzen gaituanean, muga ertzak igarotea eŕez izan oi da-ta. Maitasuna epebakoa izaten da, gustia batera nai izaten dau. Baña ama batek ume gozoa osatzeko osakaya-osakayen gañean emoten asten danean, osatu beaŕean kalte egiten dautsola be egia. Gustia geuk egin bear dogunik ez dogu uste izan bear, ori eziña da-ta.

Asmo ta elbururik gorengoa, gauza bat da, eta epebakokeria beste bat. Emen italitařak esaten dabena, astiro ibiľi ta uřin yoan, egin bear da. Buruz ondo dagozan asko bein-beinean egitez egoki ez dira izaten, eta kaltegaři ezpadira gaitz erdi.

Itz baten, elertian, bařizalekeriz, gauza on diran asko, ez dira aintzat artzen, eta beste asko, uste onez, baztertu egiten ditugu. Bařizale *tasuna*, arautzat artu ezkero, ostera, lengo ona, oingo onaz alkartzen dogu, eta lengo txařa eta oingoa bastertu, etorkizuneko yakintza osoagoari bideak gertauaz. Diñodana gora bera ez uste, egazkiñean ibilten zale diranai txalorik ez dautsodala yoko, ořeik, edertietan norañoigon geinken irakasten dauskue, baña gustiok bide ořetara ezin yo geinken bitartean, txalotu daiguzan, eta bide apalagoetatik yařaitu daigun, eřia lagun degula. Lengoen oñatzei orpoz-orpo yařaitu beařik ez daukogu, bařizalekeriari be ez. Bitarteko bideari eroso ta onuratsuen deritzogu. Baña oři baño be obe to, bakoitzak bere maľan, azkatasunez, nai ba da, baña maitasun bakařen araupean *gustiok* lan egitea... Garaitz-bidea orixe izango litzake.

EUSKO YAKINTZA TA ELERTIA

Geyegi luzetu barik amaitu daigun. Elertia eři-yakintzaren una da. Elertian, eřiaren adimen, biotz eta irudimena agertzen dira, beraz eřigogoaren agerpenik edeřentzat etsi geinke. Zineskera, edesti, oitura, yolas eta abestiak, eři-lur edertasunak, gai itun eta pozgařiak, Yaungoikoa'k eři baten biotzean erein dituan aberastasun gustiak, elertiz txukunduta txorta eder bat egin daigun. Lenen, Eusko luřa, estu ta lakar etsita edo, auzoko landatara lanean yoan diran ařoai, eusko-yakintza txorta au, erakutsi ta esateko: « Or dozuez zuok ezetsi dozuen, eři onen gogoedertasunak; nai ba'dozue erkatu beste eři-yakintza batzukaz, eta ia, Eusko-eřiak elertirik ez dabela esaten geyago asartzen zarien.» Eta gero, ondorengook, yarauntzi lez, yakintza bařiztu eta yoria, atzeři kutsuz, nastubakoa, eskintzeko aldia eldu daitenean, aldi obeak ikusteko zoria izango daben euskotařak, eskar onez eta egiz esan al izan dayela: «Gure asabak euskotar seme zintsoak izan ziran, antxiñako asabakaz lotuten zituan uřezko estuntza ez eben ausi, izenaren yabe izan ziran, eusko-gogoak eukon gora-nayari, egokiro erantzun eutsen; geu be, euren ondorengo duin izateko, yakintza txorta eder au, lora eder eta usaintsuenakaz osotuten alegindu gaitezan...»

Orixe abeři-maitasunez lan egiten dabenentzat saririk onena...

MANTEROLA'TAR GABIREL

ELERTI
LITERATVRA

## Agiŕe'tar Domeka'ren gorasaŕeari buruz

# AGIŔE EUSKELTZALE

GIZONA maitasunak darabil. Bere gorputzeko osasuna zaindu, indaŕak geitu eta bizibiderako trebetasuna berangantzen alegintzen danean, bere adimena egiaz argitu, eta bere biotza zuzentasun eta onbidez apaintzeko egiñalak egiten dituaneani maitasunak bultz egiten dautso. Maitasun zuzena, Yaungoikoa'k bere izatearen unetan ezaŕi dautson maitasun eragiḻea ta yoranez biḻatzen daben zoriona lortuteko bide bakaŕa.

Gizonak, aitatu ditugun ondasun oneik, bakaŕean iñondik be ezin leikez lortu, besteren laguntza bear dau, besteakaz bizi beaŕa dauko, eurei lagundu eta euren laguntasunagaz anaitasunik andienean, bere notintasuna galdu barik, Egiḻeak izentau dautson elburua lortuteko. Baiña gizadi osoa, Yaungoikoa'k taldeetan banandu dau. Talde oneik, sustaŕean bardiñak izan aŕen, euren izakera berezia dauke, enda berezietan bananduta dakusguz, gorpuzkeraz, izakeraz, adimenez zaletasunez, edestiz eta batera bizitetik sortzen diran kidetasunez, sendi bakaŕean, izkuntza bakaŕaz, oitura, yolas, abesti eta beste eŕiakandik bereztén dituen beste zeinki askogaz, alkaŕi berarizko maitasuna dautsela, lurbiran zabalduta ikusten ditugu, Yaungoikoa'k alantxe nai izan dabelako. Toŕas eta Bages Gotzain yakintsu ta onbidetsuak esan eban lez, abendeŕiak ez dira gizonen gurariz sortu, Yaungoikoa'ren guraziz baiño.

## Norbere eŕiaganako maitasuna

Ortik sortzen da norbere eŕiaganako maitasuna. Gure biotzean lenen sortu eta azkeneraiño irauten daben maitasunen artean, bakoitzak bere eŕiari, bere *oḻo luŕari*, dautson maitasuna aurkitzen da.

Lur̃etik kana bat burua ur̃indu ordukoxe, umeetan be maitasun onen ezaugar̃iak *bere* er̃ikoa dalako ar̃okeri apurtxo bategaz nastauta ikusiko ditugu. Alboer̃ietako laguntxoakaz aurkitzen diranean, lenen ataraten dan eztabaidea, bakoitzak bere er̃iko gauzak goraltzeko izaten da. «Gure er̃iko eleizea lakorik..., gure er̃iko pelotokiak zuenen aldean amar balio yok...» eta ondar̃utar̃ak ba'dira..... «Ondar̃u'n lango kai eta itxas baster̃ik iñun bez...» Nor da zuen artean txikitan eta... anditan be onango eztabaidarik izan ez dabenik?...

Eta onek zer adirazten dau?... Bakoitzak bere er̃iaganako maitasuna amaren ugatzagaz edaten dabela, Yaungoikoa'k geure biotzean ereindako maitasuna dala. Ba'dakit, Ondar̃u'tar̃ok onetan ez zariela azkenengoak, eta ondo egiten dozue, iñor ezetsi barik zeuena maitetuteaz. Seme zintsoak bere ama maitazen daben lez, er̃itar zintsoak bere er̃ia maitatu bear dau. Eta zeuen etxeak zar ala bar̃iak, txiro nai andiki usaiñekoak izan, zuen guraso ta asaben, maitasun, poztasun, samintasun eta otoitzen ziñaldari izan diralako, biotzez maite dozuez. Zeuen ortu lur̃ak, asaben izerdiagaz narotutako lur̃ak, maite dozuez. Zuen Eleiza eder̃a biotzeko samintasunen, eta kistartasun zintsoaren ziñaldar̃i izan dana maite dozue. Maitatu er̃iko txaide ta enparantzak, maitatu zeuen itxasoa, ainbeste poz eta ainbeste samintasunen itur̃i izan yatsuen itxaso eder maitagar̃i ta bildurgar̃ia, bertako urak zeuen asaba, seme, guraso ta anaien izerdi ta malkoakaz, gazituta dagola esan leike-ta, eta batez be, zeuen Ama laztan Antigua'koa, atsekabeetan zuen poza, zuen malkoen legortzal̃e eta zeuen Zaindari ta Ama dalako, biotzeko samurtasunik andienaz maite dozue. Orixe da norbere er̃ia benetan maitatzea!

Baiña eginbear bako maitasunik ez da. Er̃i-maitasunak gure asabak maite ebena maitatzera garoez, eurek itxi euskuezan gorputz eta gogo-ondasunak, maitasunez zaindu ta ugaritzera; euren oitura onai eutsitera, eta euren egite onak, begien aur̃ean beti daukozuen itxaso eder̃eko izpil̃u or̃etan ikusi ta antzartutera.

Orixe dala-ta, zuen er̃i-arazoak atonduteko agintaritzat aututen diranei, lengo onari eutsi eta oingo onagaz alkartuteko eskatzen yake, er̃iaren egizko aur̃erapenerako lan egin daiela, er̃itar̃en zoriona geitu ta ugaritu daiela, eta asabakandik artu dituguzan gogo-ondasunak, lenen begiz yo, ardurarik andienaz zaindu eta etsai guztiei kementsu arpegi emon daioela.

## Izkuntza ta aber̃ia

Eta ziñestea alde batera itxi ezkero zer da er̃i baten ondasunik bikaiñena?... Er̃i baten ondasunik bikaiñena, lur̃ekoen artean, ezpai barik bere izkuntza da. Eta Izkuntza da benetan guztion ondasuna, geu bizi ga-

reanona, eta gure antxiñako asabena, eta baita lur onetan biziko diran ondorengoei itxi geikion ilburukorik maitagafiena. Eta yakiña! euskaldunontzat gure euskera maitagafia.

Euskerearen bitartez gure asabakazko artu-emonari eutsiten dautsegu euskeraren bitartez, euren biotzeko maitasunez berotutako itz berberakaz sendi ta gizarteko artu emon, pozaldi ta atsekabeetan gure biotzak alkartzen dira. Euskera gure biotzaren taupadea, eta gure gogoaren arnasa da, gure asabakaz bat egiten gaituan ufezko aria da. Amaren laztan artean ikasi ditugun lenengo itzak, euskeraz izan dira, euskeraz gure lenengo otoitz samufak zuzendu dautsoguz Yaungoikoa'ri eta euskeraz egin bear dogu gure artu-emonetan, ama baten seme lez maitasunean bizita, geure asaben duin eta efiko seme zintso izan gaitezan.

Baiña gizonak, apur eta geitxoago be geurekoiak izan oi gara, afoxkoak be bai bear baiño geiago, eta guztiok dakizue maitasunak gogoak alkartzen dituan lez afokeriak banandu egiten dituala. Izufi onek ikutzen dauskunean, auzoko ogiari gozoago ereizten dautsogu, beste izkuntza batzuri *eleganteago*, besteen yolasak aufferatuagotzat, eta efitafak baiño burua gorago agertu gurarik aizez beteta, norbere efian modatik igarota dagola-ta, maitasuna galtzen asten gara, eta oretara eldu ezkero, gure efian bizi afen, erbesteko lez agertzen gara. Gurasoakaz bizi afen, semeak maitasunik ezpadautse, bere etxean ostatuz dagola begiranduten yakun antzera, efian bizi afen, asaben gogoa bere biotzean ez daroana erbesteko lez agertuko da.

Beti be bai, baiña afisku oretan efiak aurkitzen diranean, efiko seme yatofak, bere maitasunean geien gaillendu diranak, seme ospetsuak goratu, txalotu, eta enparauen eredu ta yafaibidetzat anaien aufean ipintea, eginbear txalogafi bat baiño ez da. Ondafu'ko Udal argiak ba, bertoko seme ospetsu, eleiz-gizon onbidetsu eta euskel-idazle eta euskelzale bikain, Agife'tar Domeka yauna, goratu eta eredutzat ipintea erabag dabenean, ondafutar eta euskeldun guztion txaloak irabazi ditu.

Eta omen onetan bere euskelzaletasunatzaz zerbait esateko eskatu daustazuen ezkero, emen naukozue neuk al dodana egiteko gertu. Gorbea mendiaren oiñean yaioa naz ta, Agife yaunaren euskelkaletasuna goraltzeko itzalditxo onetan, gura neuken beste gatz, itxas-ertzekoak euki oi daben gatza, ezin agertu neikela badakit, baiña ez daukanak daukanari eskatzea egoki da-ta, ondafutar bateri eskatuko dautsot. Eta ondafutar ori ez da edozein izango, goratu gura dogun Agife yaun agurgafia baiño. Nire itz guztiakaz baiño, bere itzakaz obeto agertuko dautzuet bere euskelzaletasuna zintso ta sakonena izan zala, bere ta gure euskera maitagafia, bere biotzaren-biotz eta odolaren-odol izan zala. Zuzen nagoan ala ez berak esango dautzue.

# Agiŕe yauna

Bizi guztian biŕitan bakaŕik ikusi neban, eta bietan euskeraren aldez gogoz lanean. Lenen 1916'ko Yoŕal̄a-2'n, Bilbao'ko *Campos Eliseos* antzokian egin zan euskera aldezko batzar baten itzaldi bat irakurten, eta bigaŕen Oñati'ko Eusko Ikaskuntzako Batzar ospetsuan euskeraren aldezko lanetan maipuruko. Bigaŕen aldi onetan gexo astunagaz, asko yausita zegoan, baiña euskeraren aldez lan egiteko, maitasunak indarbaŕitzen ebala esan zeikean. Bere itzaldi, autu, artu-emon eta yoan-etoŕi guztietan alako *zer* bat agertzen eban, ikusten eben guztiei auxe esan gura eutsona: « Gizon au, utsik egin barik, otzan, apal, onbidetsu, eta yakituna da». Ni beintzat eretxi oŕegaz etxeratu nintzan.

Baiña batez be, euskelzaletasuna, alde guztietatik erion. *Axe bai zala egiz euskalzale bikain eta euskelzale eredu!* Entzun daiogun berari. 1898'ko Agoŕa'ren 18'n Zestua'ko Euskal-Jaietan, Gipuzkoa'ko aldundiaren auŕean egin eban eleiz-itzaldian itz oneik esan zituan: « Ni Euskalduna naiz, lau aldietatik euskalduna, euskalduna biotz ta arimatik, euskeraren maitasunean, beste bati goragoko mal̄an jartzan utziko eztiotan euskalduna»..... «Neretzat euskara, egaztiarentzat aizea bezela da, gizonarentzat arnasa bezela»... (26'n ing.) Baiña Agiŕe yauna, biotz-biotzetik esan zituan itz oneik, bere egite ta bizitza guztian egiztu bazituan, ez zan izan euskera bere yaiotzetiko izkuntza izan zalako bakaŕik. Bere euskaltzaletasunak bein baiño geiagotan esan eban lez, gorago be sustraiak izan zituan. Eleiz gizon zanez, be, euskera maite-maite eban, euskereaz anaitasunik edeŕenean, kistar ziñestea, izketa garbia eta euzkeldun yatoŕen ekandu garbiak alkartuta ikusten zitualako be bai.

Itz labur oŕeitan, argiro ikusi geinke, Agiŕe yauna ren euskalzeletasunak, bere izate eta biotz baŕuan sustrai sakonak zituala. Ondo ekian, nonbait, andik iru urtera, XIII'n Leon Doipuruak, Boemia'tar Gotzaiñei zuzendu eutsen Idazkian esan eban lez, «Gure izatean baŕuan sartuta daukogu, asabakandik artutako izkuntza, maitatu ta zaindu nai izatea». (1901'ko Dagonil̄a-20'n) (1).

Norbere izkuntza maitatzea ba, Eleizak irakasten dauskunez, ez da gizonak ezaŕitako eginbeaŕa, geure baŕuan Yaungoikoa'k berak, geure izatearen baŕen-beŕenean ezaŕi daben lege bat baiño. Eta Yaungoikoa'k gure izatearen mamiñean ipiñi dituan legeak, gizon izan nai daben gizonak bate egin bear ditu. eta ori egiten ez dabena, naiz yakitun, naiz aberatsa izan, bere zaiñetan daroan odolaren duin ez da egundo izango.

Norbere amak laztan artean irakatsitako maitasun-izkuntza, edozein dala, maite ez dabenak, ezin leike maitetu bere yatoŕia, bere abizenak, bere asabak, bere eŕia ezta egizko maitasunaz, bere ama be.....

---

(1) « Insitum enim natura est acceptam a proavis linguam amari tuerique velle». (XIII Leon-1901-Dagon-20'n)

Len esan dogunez, Agiŕe yaunaren euskeraganako maitasunak, bere eŕiaren maitasunean eta eŕi onen ziñeste sutsuaren maitasunean sustraiak zituan. Kardaberaz agurgaŕiak esan ebana gogoan eukon nonbait: «Euskerak burua yasotea Yaungoikoa'k nai du». Euskera galdu ezkero, beragaz daroaz saŕitan, itz garbiak, ekandu onak, eta zenbat bider ziñestea bera be bai. Geure begiz ikusten dogu euskeldun yator eta zintsoenak aurkitzeko, euskera zintso zaintzen dabenen artera yo bear dala. Izan be, eŕi batek bere izkuntza galtzen dabenean, bere mendu ona ta gogoa be galdu egiten dabela esan lei, eta Grentrup yakintsuak diñon lez, «bere gogo batasuna galtzen dau». Eta idazle berak diño, « Abenda eŕi batek, zabarkeriz eta ardura barik bere argaltze ta galtzea ikusten dabenean, Yaunagandik artutako ondasunagaz geiago irabazi ez eban Goizparkiko moŕoi antzeko egiten da, orixe dala-ta beste barik ugazabak galtze baŕiakaz zigortu ebanen antzeko». *(Muttersprache und Religion*, 78, ing. Munster 1832) Illumirare-Bagila 1934. Orixe dala-ta Eleizak beti eta batez be gaur egunean gogor agintzen dau, eŕi bakoitzari bere izkuntzan zeruko bidea irakatsi bear yakola, eta ori galerazo gura dabenen indarkerien aurka kementsu bere asaŕea agertzen dau, oin urte bi. Tirol'en kistar-Ikasbidea italeraz irakasteko agindua Italia'ko agintariak emon ebenean, agindu aren aurka XI'n Pio agurgaŕiak agertu eban lez. Eta ondiño ilabete ez dala Trieste Gotzain Fogar agurgaŕiak berberorixe egin dau. Orixe dala-ta, Bizkaian oin ogeta bi urte, *Euskeldunei Euskeraz,* zeruko bidea irakasteko *Yaungoiko zale* yaupari Bazkuna sortu zanean, bereala Agiŕe yauna baz kidetu zan. Gure eŕiak ziñestea unetaraiño sartuta dauko Yaunari eskeŕak, eta bertan sustaŕak dituan euskereagaz oso ederto alkartzen da, besqte eŕi batzuetan bertakoagaz alkrtzen dan legez edo obeto.

## Agiŕe yaun ondaŕutar ospetsua

euskelzale eta zegaitik euskelzale izan zan naiko argi ikusi dogu. Ez zan izan gaur peŕetxikoak baiño ugariago basteŕetan azaltzen diran «euskelzale» askoren antzekoa. *Miñez,* «ni euskelzale naz» edozeiñek esaten dau, eta «siento mucho desconocer la lengua de mi país» be bai, baiña itzok egizkoak izan diran ala ez eurak esango dautzue. *Miñez* diñoena miñagaz guzurtetan dabe. Euren ezpaiñetatik euskerarik gitxi urtengo dau, ikasteko alegiñak, ogetik yaiki gura ez daben alpeŕaren antzekoak dira, ez dozuez euskerazko idaztiagaz ikusiko, ez dabe ezer euskeraz irakuŕi gura, eta idatzi be euskeldunei euskeraz egundo ez dautse egingo. Oŕen euskelzaletasuna itxasoan egundo oiñik ipiñi gura ez eta «ni aŕantzale naz» esaten dabenen itzen antzekoa da. Baŕiketa utsa....

Egizko euskelzaletasuna, euskeraz nai non eta beti euskeldunakaz egitean dago, euskera biotzean eroatean, biotzean dagonak agotik urteten

dauta; euskeraz edozertako gaiak azaltzen alegintzean, euskera garbitu, txukundu, eta auntzoñak arte zañari lez, ezañi yakozan ostro kaltegañietatik garbitzean; euskera bere etsaiakandik aldeztutean; euskeraren eskubideak kementsu aldeztutean; euskera baseñitar ala añantzal̄e gixajoarentzat bakañik dala esan barik, andiki, yakitun, aberats eta, itz baten, euskotar odola zaiñetan daroen guztien artean zabaltzeko alegin egitean. Orixe dagiana da euskaldun eredu, eta ori egin eban zuen eñikide bikain Agiñe yaunak.

Berari itz egiten lagatzeko ordua dala uste dot.

*Lenen, zergaitik galtzen dan euskera esango dausku-Bigañen, euskerari sartu yakon goñiñea zelan osatu bear dogun. Irugañen, euskel etsaiak zeintzuk diran. Eta azkenez, euskaldunok orain arte, euskerari ilten lagatzeaz, egin dogun okeña, zuzendu ta gorengo mail̄ara yasoteko zer egin bear dogun.*

## Zergaitik galtzen yakun euskerea

Idazpuru onegaz, 1899'n urteko *Euskalzale* Azkue yaun euskelzale bikaiñak argitaldu eban asteroko aldizkingi edeñean, urte atako 22 ta 23'n zenbakian, Agiñe yaunak idazlan txukun bat agertu eban itaun oneri erantzuten. Ara berak diñoana: Erdaleñitañakaz gabiltzalako nai ta ez ibil̄i bear da-ta. Oñegaitik lenengo, eta bigañen, geu bere asko erdelzaletu garealako, eta edozein euskeldunagaz ta edozein tokitan erderaz diardugalako euskera zuzen, garbi maitea basteñeruntz boteaz.»

«Bigañengoa da alde mingañiena, geure gogozkoa dalako. Geure eskuan legoke euskeraz itz-egitea, gura bagendu; baiña eztogu gura edo eztakit nik zer gertatzen dan, bada erderaz diardugu euskeldun geienok».

«Eztago ikustea baiño, Durango edo Mañarin, Tolosan edo Asteasun, Etxañik edo Lakuntzan yaio ta euren gurasoen aotik euskera besterik entzun eztaben gizonak zer egiten daben Iruñan, Donostian edo Bilbon bizi badira: goizetik gabera eztitute lau itz euskeraz esaten. Eztago euskera ondo ikasten zeintzuk saiatuten diran begiratzea ezpada: lau zoro edo zorotzat begiratuten yakuen eñitar banakak. Euskera baseñitarkeritzat dauke ondiño euskeldun askok, eta baseñitar izate ori ezta gogozko gauzea eñi andietako gizon añotxuentzat.»

«Eta yakiña da: iñoiz nai ta nai ez, euskeraz itz egin bear ba'dabe, euren aotik Aitoñen izkuntza gozoak erdaldunduak urteten dau; eta zelan diran eurak eñitxuetako gizonik argienak legez ezagutuak, euren esakerea ona dalakoan, basañiko gizon apal zintsoak ikasten ditue eta esaten ditue erderazko itz zakar asko gaizto asko, euskerazko itz eder egokitzat arturik.»

« Bitartean ezagutu daigun danok daukaguzola eñuak, eta euskera ilten ba'da, geuk il dogula, alperkeriaz, ganorabakokeriz, maite izan eztogulako.»

Idazlan onen bigaŕen atalean, gauza zaŕak onak diranean aintzat artu ta txaŕak ba'dira baztertu, eta euskera garbitzeko lan egin bear dogula-ta, neure soiñekoa daroenai, oar batzuk egiñaz onantxe amaitzen dau: « Gura dabenak asko dagike, egin daike. Gura eztabenak ezer bere ez. Lan apurtxo bat egin ezkero, euskera onean ezin itz egin daben euskaldunik eztago. Lanik egin barik, euskeraz ezer irakuŕi nai ezik, euskera onean yardungo dabenik ezta sortu Salomon baiño yakituri geiagokoa bada bere ».

Ikusten dozuenez Agiŕe yaunak oin ogetamabost urte idatzi ebana, gaur askorentzat be ondo dator. Eŕietan buru izan diranetatik etoŕi dira gaitzak. Osabidea bertatik etoŕi bear dau. Orixe bide zuzen eta bakaŕa.

## Euskereari sartu yakon goŕiñea zelan osatu?

Euskera askok txirotzat dauke, eta euren bizian lau leŕo irakuŕi ez dituen sasi-yakitunak, or dabilkiguz, au ta ori ta bestea, euren antzera, euskel gaietan sasi-yakitun diranentzat esaten. Baiña lurbiran izkuntza gaietan gizonik yakintsuen diranak, euskerearen sakontasun eta aberastasunatzaz esan dituenak gogoan eukitea naiko da, auntzen gaberdiko eztuleri baiño yaramon geiago ez egiteko. Yakitun beste gauza batzuetan ba'leiteke izatea, baiña eztakien gauzetan sartzea yakitunen ezaugaŕi ez dala edonok daki. Entzun daiogun Agiŕe yaunari: « Euskerea aberatsa da, baiña bere abarastasunak toki batean eziturik eztagoz, Euskaleŕi guztian zabaldurik daukaz: batzuk baso zugaztitsuen baŕuan, beste batzuk mendien egaletan, beste batzuk Kantauriko itxasoaren ertzean; Bizkaian legez Gipuzkoan, Gipuzkoan legez Napaŕoan, Napaŕoan legez Franziako anaien artean. Alderdi guztietan sartu yako euskereari goŕiñea; alderdi guztietan dagoz oraindiño euskerearen sustrai onak eta landara mardulak bere bai.Goŕiñea kendu ta sustrai onetik datozen landarak lurbatetik bestera aldatu, ori da guk egin bear doguna. Eztogu erderazko itzik aotan erabil̄i bear, esan gura doguna euskerazko itzakaz esan daikegunean ».

« ¿ Baŕiak dirala nik dakardazan itzak esango daustazu, irakurlea? Ez naz baŕi zalea, ta itz baŕi asko eztot esango: yatoŕi oneko itz zaŕak izango dira geienak, zuk lenago entzun ezaŕen; bada Euskeleŕiko itz guztiak dakizan euskaldunik eztago nire ustez, Gazteleŕiko danak dakizan gaztelaŕik eztagoan antzera. ¿ Baiña zer baŕiak izanda be? ¿ Eztabiz egunero Gaztelako izkuntzan itz baŕiak ikasten? Da, ¿ zegaitik ikasi bear eztira geureak? ¿ Ainbeste euskaldun zintsori ezteutsegu geuk buruetan sartu, zer esan gura daben, *excelentea, admirablea, infinitamente pode-*

*rosoa, sabioa, principioa ta fiña,* ta beste olango erderakada ta mordoIokeri asko ? ¿ Eta euskerea erakusteafen erderea basefitafen buruan sartzeko aiña lan eztogu egingo ? ¡ Ona dago beraz gure efizaletasuna ! » Auxe diño KRESALA idazti txukunaren asieran.

Beraz Agife yauna, garbizale ta bere neufian bafizale izan zan, *bafikeri* zale ez baiña.

Egia esateko, gitxi yakin eta asko dakiala uste dabenentzat dana da bafi, baiña orixe berori gertatzen yako mutikoari lenengoz eskolara doanean, ....izki edo *letra* guztiak bafi egiten yakoz !

Maite dogun gauzea albait garbi ta txukunen ipinten alegintzen gara, eta ori ez egitea maitasunik ez dogun ezaugafi da, eta maitasun barik euskera aldez zer ?... Maite ebalako itz oneikaz yafaitzen dau : « Nik geure euskera maite-maitea dan baiño be geiagoan bigun eta irakurgafia egin gure neuke....» Geuk beste ainbeste egin daigun eta Agife Yaunaren yafaitzaIe zintsoak izango gara.

## Euskera etsaiak zeintsuk diran eta guztiei erantzun egokia

Atal oneri KRESALA'ko *Bedar Txafak* irakurburutzat dauken azalburuan erantzuten dautso, eta egoki erantzun be. Eztabaida onetan euskeraren etsai lez, iru gizon sartzen ditu. *Ezpataduna,* IzkiIoduna, *Oial saltzaIea* ta *Indianoa.* Nire ustez, euskeraren iru etsai txafenak sartu gura zituan : *Indarkeria, diruzalekeria,* eta zofi aberastuaren *ezyakin eta afokeria* Indianoan.

Euskeraren aldez Afanondoko Itsasgizon begikoa, irurak batera baiño sentzun geiago agertzen dabena.

Nasa gaiñean zutinik, ondo yantziriko bost gizon egozan alkafegaz autuan, eguzki epela artuaz batera. Euren artean Itxasgizona.

« Gure Itxasgizona bekoki baltz samafekoa zan, itz latzekoa batzuetan, biotzean eukan guztia efaz kanpora botatzen ekian gizona, edozeiñi egi andiak esaten eutsazana, bear zanean ; baiña arima leiñargi ta onekoa. Asafe zalea izan ez afen, Euskal-efiari edo Elizari ikuturen bat iñok egin ezkero, asafetik ufiñean etzan ibilten ».

« Lelo, zio edo gai ofegaitik, au da, Elizari ta Euskal-efiari bakean ezin itzieutsielako, Itxasgizonak askoetan miñ emoeutsen beragaz batuten zirean erbestetar edo erbesteturiko batzuei ; baiña alan da guztiz be ezeben beragandik iges egiten, maite ebielako, edo dirutsua, Afanondon guztiz ondo ikusia ta eskubide andikoa zalako ».

« Bost gizonak erderaz ziarduen, baiña nik euskeldunentzat egiten neure lantxo au ta euskeraz ipiñiko dot beren yardun guztia ».

«—Nik eztakit—ziñoan ezpatadunak,—zeiñen aufean egoan azturik

nunbait—ze *deabruzko* eresiak esaten dituen or bafuko astuok euren txakur-izkuntza ofetan.

*Itxasgizonak*, arpegia beingoan iḹundurik :

—Etzeunkan ona etoŕi baiño lenago euskerea ikastea baizen : dana ulertuko zenduan orduan ederto : Nik erbestean ibiḹi izan nazanean, euren izketan itz egin dautsiet erbestetaŕai, erdizka eta motel bada be. Etxat egundo gogoratu eurak euskeraz itz egin bear daustiela neuri ».

« *Iskiḹoduna* :—Baiña gizona, zer diñostazu ? Gogoratu eizu alde batetik, zuen euskera ori, erdi izkera eskel zatar bat dala, ta beste aldetik espaiñar guztiak guztiok gastelaŕez ikastera nai ta eztuak gagozala. Gastelaŕez bakaŕik itz egin bear da Españian, da beste izkera danak osaro ta betiko kendu ».

« *Itxasgizonak*, berotuten asita :—Eztiñozu ondo, zalduna. Euskerea antziñetako izkera guraso, eder, mamintsu ta zakona da, atseŕitar yakitun askok dakien legez, zuek yakin ez aŕen. Da gaiñera, ¿ zeiñek esan dautsu zuri, naita naiez ikasi bear dogula guk Gastelako izkuntzea ? Eztiñot gura dabienak ikasi eztaiela, ikasia beti dator ondo ta ; eztiñot gastelar agintariakaz Euskal-eŕiko gauzen gaiñean zerbait erabagi bear daben euskaldun nagusiak eztabiela ikasi bearko ; baiña euskaldun guztiok ? Zeiñek nai ta naiez itz eragingo dausku gura eztogun eran ? ¿ Zer dala-ta ? ¿Zeiñek dauka Españian gu oŕetara ipinteko eskubidea ? ¿ Ezkara izan gu geurekoŕak eta askatuak, geure gurariz eta geuk ipiñiriko zertzelada-batzukaz, Españiaren laguntzat ez mendekotzat yaŕi giñan artean ? ¿Nok dauka gu makurtuteko eskubidea diñot ostera be ? Indaŕak ? ¿ Indaŕa dozue eskubidien iturburua ? Bada orduan ondo egieban Nopoleonek España menderatutera etoŕi zanean. Baina itxi daiogun alde batera euskaldunen geurekortasun da askatasunari. ¿ Zegaitik kendu bear yako gizon, etxadi edo eŕi bati beren endako itxurea, beren aberastasuna, iñoren on barik ? ¿ Zergaitik kendu bear yaku guri geurea ? ¿ Ezta naikoa norbere luŕean daukagun ondasuna ez ezagututea ; ezta naikoa, alpeŕeri ta nagitasunagaitik izkuntzarik zaŕen da maitagaŕiena ez ikastea, aŕotzak ikasi oi daben legez ; ezta naikoa basterturik eukitea, entzun bere ez gura izatea ; il da lurperatu egin bear da gaiñera ? ¿ Eztozuez zeuek bandera oial da burdin zaŕak gordetan gertaera gomutagaŕi on batzuen gomutagaŕi legez, edo zeuen asabienak diralako beste barik ? Bada, ¿ zegaitik itxi ez guri zuen eta geure asabien izkuntz edeŕa mendi tartean gordeten ? »

—« *Izkiḹodunak* : Etzaite asaŕatu gizona, baiña yakin eikezu, euskarak eztabela ba zuk uste dozun aiña edertasun ».

—« *Itxasgizonak* : ¿Zuk zelan dakizu ori euskerarik ikasi ezpadozu?»

—« *Oial saltzaiḹeak* : Neuk be eztot ikasi, Bilbotaŕa izanaŕen, gurasoak ezeusten erakutsita ; baiña eztot damurik be. Euskaleŕitik kanpora

euskerea ezta ezertarako, ta Euskal-eŕian bertan edozeiñek daki gaur gastelaŕez ».

—« *Itxasgizonak :* Zuk euskerea ezyakiñagaitik damurik ez izatea, miraritutekо ipuiña ezta. Zuek, bilbotaŕok, antxiña galdu zenduen asabien izkera biguna ta antxiñatik zagozie erdaldundurik, eta gaiñera zuretzat, sal-erosketarako ona ez dan gauzea ez da iñoiz be ona izango. ( Zeuk saltzeko gauzea ba'litz, edeŕetakoa dala be laster esango zenduke zuk ). Baiña yakin eikezu, lenengo, saltzal̄ientzat onak ez diran gauzarik asko badagola luŕean, da bigaŕen gure euskera eztaukagula saltzeko. Euskal-eŕian baŕiz edozeiñek itz egiten ba'dautzu erderaz ainbat gaiztoago : neu *dendaria* ba'nitz, ikasi bearko zendukie euskeraz, oialak eta enparauak eskiñika zatozentxuok.

*Indianoak :* Kukuŕuku egitera doian ol̄aŕa legez burua yasota, zudur azpiko bizaŕak kiskurtuaz, guztiz astiro ta benatsu :

—Neuk esan neike iñor baiño obeto, luŕ asko ikusi ditut eta : euskereak eztau ogia irabazteko *balio.* ( Yo puedo *disir* mejor que nadie, *ha* visto *muchos* tierras : *bascuentze* no vale para ganar pan ).

—Zelan irabazi dozu ba zuk geldotzaŕorek? ¿ Erderaz yardun edeŕen batzuk eginda ? Ezagun dozu.

—Nik neure ogia lan gogoŕean da ondo irabazita daukat.

—Eztiñot ezetz, baiña lanean egiteko eztot uste euskereak kalterik egingo eutsunik, eta erdereak indar andirik emongo eutsunik bez ». (Kresala-94-97'n ing.)

## Ara emen, Agiŕe yaunak

indaŕa dala, aŕokeria dala, txindi-zalekeria ta ezyakiña dala-ta, euskeraren aurkaka guztiei emoten dautsen erantzun egokia.

Goazen azkenengo atalera. Ba'dira euskeraren etsaien artean, gaxorik ia il̄ean dagoala-ta, Unamuno baŕegaŕiagaz, il bear dabela esan daroenak, eta eleiz-progu alagalako batzuk egin bear yakozala esaten dabenak. Kirtenkeri au oin ogetaka urteak dirala esana da. Bidegabekeri oŕeri, Zaragoza'ko « El Eco de la Cruz » deritxon aldizkingitxoak, erantzun egokia emon eutson, eta datoŕen tokitik datoŕelako, emen ipintea egoki deritxot:

Ara erderaz emon eutson erantzuna:

«Gura dozu ipuin bat edestutea?»

Ara, ba. Nire eŕian gizon gaizto gaizto bat bizi zan. Birao aiñen eta itz zakaŕak ituŕi batetik bere ao zikiñetik urteten eben. Egun baten, Yaungoikoa'ren aurka yarki esaten asartu zan: «Yaungoikoa ain altsua ba'da, zer dala-ta ez nau, zigortzen, miña aŕatuta? Une atatik itz barik gelditu zan, itz egin gura ebanean ots zerbait egiten eban, baiña ezer be ez yakon ulertzen, kirtenkeriak bakaŕik aituten yakozan.» Eta aldizki erdelduneko

itzak dakarzan lez aitatuko dodaz: «Asi hace ese señor, solo se entienden claro sus disparates.»

¿Ha sido inconveniente el vascuence para que las provincias sean las más adelantadas de España? Y si no lo ha sido en el pasado, ¿cómo lo será en el porvenir? Dicen que el vascuence es corto, tan corto que con él no se puede blasfemar de Dios. Tal vez el señor Unamuno encuentre despreciable una lengua que no sirve ni aun para blasfemar, sin fijarse en que a eso, tal vez, deba ese pueblo la pureza de sus costumbres, la firmeza de su moral y la virilidad de su raza» (El Mago tom. I. 18 ta 19'n ing.)

Oin ikusi daigun, Agiŕe yaunak ori diñoenai, Bilbao'ko *Camgos Eliseos* antzokian 1916'n egin eban itzaldian emoten dautsen erantzun bikaiña: (1)

«Euskerea gaxorik, ia il̄ean dagola. Gaixorik bai, ia il̄ean ez Yaungoikoa'ri eskeŕak. Baiña gaxorík baldin badago ¿zein ezta gaxoaren eŕuki? ¿Nola eztegu euskera babestu bear? ¿Noizko ditugu sendagaŕiak? ¿Zertan daude eskubideko yakintsuak? ¿Zer egiten dute zaintzal̄e izeneko gizon oiek? ¿Nolakoa da batez ere, gaixoa sendatu beaŕean, geiago zauritu nai duan sendagil̄ea? ¿Nolakoa da bere ustez il̄ zorian dagona yo ta zapaldu nai lukean sen agintaria?»

«¡O! Benetan aŕitzekoa da gure izkuntzari erbesteko gizon maltzuŕok egin nai diotena; baiño ¡ai! askozaz aŕigaŕiagoa da geuk euskaldunok, egin dioguna; bada geuk yardun degu geienbat euskeraren kaltean, geuk iraindu degu erbestetaŕak baiño ere geiago, geuk bota degu geure ezpaiñetatik, geuk yaurti degu geure urietatik baso baztaŕera, izuŕiz kutsutua dagoanaren gisa. Bai auzoetako mintzo apaiñak ezagutzean, gure izkuntza naŕas ta baldaŕa iruditu zaigu ta Euskaleŕiko semeak euskeraz mintzatzen ¡lotsatu egin gara! Ori egin oi dute, beren gurasoak goizetik gaubera aberastu diran edo zerbait ikasi duten ume dol̄oŕak. Geurea da ba eŕua, geurea obenik andiena.»

**Euskeldunak, nere anaiak,**

ernaitu gaitezen ta bide beŕiak artu ditzagun. Nik ba dakit ederzaleak zeratela ta edonungo edeŕari abegi ona egiten dakizutela. Ordu onean izan dedila; baiño etzazutela oŕegaitik euskera iñon ukatu, etzazutela besteak baiño gutxiagotzat euki. Euskaleŕian yaio zeraten guztiok, andiki ta beartsu, andikiak batez ere eŕi ta erbestean etxe baŕuan eta enparantzaren erdian ¡Yaungoikoagatik! euskeraz itz egin zazute. ¡O euskera kutun nere mintzoa! Etzera zu iñoren lotsagaŕi. Iraunkoŕa zera Ernioko gal̄uŕak aiña; lerdena zera, Anboto erpiñen irudira; garbia zera Aitzgoŕiko elur zuria beste, liraiña zera Aralarko Aingeruaren gisa, nerea zera eta

(1) 1916'ko Yoŕal̄a-15'ko «Euskaleŕiaren Alde» n argitaldu zan.

maite zaitut. Zure kopeta zabalean antxiñako yatoŕi onaren kera ta kutsua dakuskizu, zure sorbaldetan izkuntza gurasoen soiñeko apaiña daramazu.

«Naiz ta gaur gure mendi basteŕean apala egon, zure bizitza luzean alderdi askotan on egiña zera. Zuk eman diezu beste mintzo askori, zure izatearen mendua, zure argiaren izpia, zure suaren txingaŕa; zure odolaren goŕiunea. Izkuntza beŕi oiek aŕo ta gangar badabiltza ere. beti zure zoŕetan egon bearko dute ¡O euskera maitagaŕia! Zuri nai dizut eresi. Oso aurtxoa nintzala, oraindik seaskatxoan nengoala. amaren laztanaren aoz sartu ziñan nere biotzean eta ordutik auŕera nere biotzean zauzkat. Etzera zu neretzat egundaiño izan txiro ta itxusi; zu zera neretzat izkuntzarik gozo, samur, guri, mamintsu ta zoragaŕiena. Oraindik ezea zaude, oraindik kemena badezu, oraindik lore beŕiak eman bear dituzu. Gure animetan dago ta gure animetatik aterako degu zure azia; geuk ereingo zaitugu zoro ta zelai, ibar ta mendi, egi ta baso, lur guztietan, erneko da oparo zure landara beŕia; gure izerdiz ta bear bada gure odolez narotuko degu, ta geuk azalduko zaitugu, azkenez, beste izkuntzen erdira onela esanaz ara emen euskera: ikusi zazute zein mardula dagon, begira zazute zein egoki apaindua yaŕi degun.»

Ori egin ezik, ezkiñake seme onak izango.

¡Gora zu, nere mintzo zaŕa, gora euskera maitagaŕia!

Eta gure lanean diardugula iñok ezer esan eta ixiĺik egoteko esango ba'leuskigu, ara Agiŕe yaunak erakusten dauskun erantzuna. Len aitatu dogun itzaldian bertan. «Agindu ori da arkaitz gaiñean dagon aŕanoak, aŕanoa dala ta beste gabe baso itzaleko eŕetxiñolaŕi esango balío bezela: «Ixo, utzi zazu bein zure yarduna, ixildu zaite». ¿Ixildu nadiĺa?—erantzun dezaioke txoriak.—¡O! ezingo naz iñola ixildu; berezkoa det nere txio yotzea, eŕekarteko ituŕiak beren murmuŕa, zelaietako loreak bere usaia berezkoa duten antzera; kendu zadazu nere bizitza, baiño ez nere mintzoa, bada neri dagokidan txio ezti gabe, ni ez naiz eŕetxiñol». Era beran esan dezakegu euskaleŕitaŕok; yakin zazute agintariak: gure mingañera euskera berez datorkigu, euskalduna euskera gabe ezta euskaldun ta euskaldun izatea ezingo digu iñork debekatu».

Ara emen ondaŕutar maiteak, zuen eŕitar, Agiŕe yaunaren, euskelzaletasun samur, sutsu, kementsu, eragikoŕa zelanbait azalduta.

Idazle bikain eta bardingabearen goralbenez eraldu dituzuen yai oneitan, erabagi bat artu bear dozue, zuen ziñeste ta euskerea, biotz baŕendik maitatu eta bere antzera, maitasun ori egitez agertzeko erabagía.

Euskaltzaletasuna ziñesteagaz beti alkartuta ibiĺi da ta auŕerantzean be, alantxe izan daiten ezaiteze aztu antxiñako esakunaz «Euskeldun, fededun». Ondasun bion aldez, guztiok batera—Ekin eta yaŕai!

MANTEROLA'TAR Gabirel

# YAKINTZA

BILEROTIK BEINGO ALDIZKINGIA

REVISTA DE CVLTVRA VASCA

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

11'gaŕen zenbakia. 1934'ko. AGOŔIL-UŔILA - Núm. 11. Año 1934. SEPTIEMBRE-OCTUBRE


## AURKIBIDEA - INDICE


**ELERTI-LITERATURA**

*Manterola'tar Gabirel.*—Agiŕe'tar Domeka'ren gorasaŕeari buruz. Agiŕe Euskeltzale . . . . . . . . . . . . . . . . Pág. 323
*Onaindia'tar Yakoba A.*—Ontziska ta Ekaitza . . . . . . . . » 335
*Tapia-Perurena'tar Alexander.*—¿ Izanen aiz nerea?. . . . . . » 337
*Urkiaga'tar Estepan.*—Etxeko alaba—La hija de casa . . . . . » 338
*Abody.*—Adiskide bati, Agur . . . . . . . . . . . . » 339
*Gaztelu.*—Ele-Ama . . . . . . . . . . . . . . . » 340
*Erkiaga'tar Eusebi.*—Uso bi iduri . . . . . . . . . . . » 342
*(Goethe).*—Tule'ko Eŕegea, Iraizoz-ko P. A.-k, euskeratua. . . . . » 343

**ANTZERTI-TEATRO**

*Schiller.*—Wilhelm Tell, Goenaga'tar Iñakik euskeratua . . . . . » 344

**IRAZKINTZA-PEDAGOGIA**

*J. de Ariztimuño.*—Lucha de idiomas en Euzkadi . . . . . . . » 353

**LEGE-YAKINTZA-LEGISLACION**

*Bonifacio de Echegaray.*—Cuestionario de Derecho Popular Vasco . » 366

**EDESTI-HISTORIA**

*Fr. Eusebio de Echalar O. M. C.*—Palabras vascas en Monumentos Romanos. . . . . . . . . . . . . . . . . . » 369
*Martin de Anguiozar.*—Los vascos en 1800. Fiel Regidor . . . . . » 379
*Angel Zabala.*—Orígenes vascos . . . . . . . . . . . » 381

**ERESERTI-MUSICA**

*P. Olazarán D'Estella.*—Nuevos detalles sobre v jas danzas baskas » 392

**ACTIVIDADES DE EUSKALTZALEAK**

Acuerdos de la nueva Junta Diŕectiva . . . . . . . . . . . » 396
BIBLIOGRAFIA . . . . . . . . . . . . . . . . . . » 398

**GRABADOS**

D. Domingo de Agiŕe, gran novelista euskeldun . . . . . . . . » 336



IDAZKOLA ETA BANAKOLA-DIRECCION Y ADMINISTRACION

Euskaltzaleak

DIPUTACION PROVINCIAL (SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS)


ARRUE

# ELERTI
# LITERATVRA

### Agiŕe'tar Domeka'ren gorasaŕeari buruz

# AGIŔE EUSKELTZALE

GIZONA maitasunak darabil. Bere gorputzeko osasuna zaindu, indaŕak geitu eta bizibiderako trebetasuna berangantzen alegintzen danean, bere adimena egiaz argitu, eta bere biotza zuzentasun eta onbidez apaintzeko egiñalak egiten dituaneani maitasunak bultz egiten dautso. Maitasun zuzena, Yaungoikoa'k bere izatearen unetan ezaŕi dautson maitasun eragil̄ea ta yoranez bil̄atzen daben zoriona lortuteko bide bakaŕa.

Gizonak, aitatu ditugun ondasun oneik, bakaŕean iñondik be ezin leikez lortu, besteren laguntza bear dau, besteakaz bizi beaŕa dauko, eurei lagundu eta euren laguntasunagaz anaitasunik andienean, bere notintasuna galdu barik, Egil̄eak izentau dautson elburua lortuteko. Baiña gizadi osoa, Yaungoikoa'k taldeetan banandu dau. Talde oneik, sustaŕean bardiñak izan aŕen, euren izakera berezia dauke, enda berezietan bananduta dakusguz, gorpuzkeraz, izakeraz, adimenez zaletasunez, edestiz eta batera bizitetik sortzen diran kidetasunez, sendi bakaŕean, izkuntza bakaŕaz, oitura, yolas, abesti eta beste eŕiakandik berezten dituen beste zeinki askogaz, alkaŕi berarizko maitasuna dautsela, lurbiran zabalduta ikusten ditugu, Yaungoikoa'k alantxe nai izan dabelako. Toŕas eta Bages Gotzain yakintsu ta onbidetsuak esan eban lez, abendeŕiak ez dira gizonen gurariz sortu, Yaungoikoa'ren guraziz baiño.

## Norbere eŕiaganako maitasuna

Ortik sortzen da norbere eŕiaganako maitasuna. Gure biotzean lenen sortu eta azkeneraiño irauten daben maitasunen artean, bakoitzak bere eŕiari, bere *ol̄o luŕari*, dautson maitasuna aurkitzen da.

 Luŕetik kana bat burua uŕindu ordukoxe, umeetan be maitasun onen ezaugaŕiak *bere* eŕikoa dalako aŕokeri apurtxo bategaz nastauta ikusiko ditugu. Alboeŕietako laguntxoakaz aurkitzen diranean, lenen ataraten dan eztabaidea, bakoitzak bere eŕiko gauzak goraltzeko izaten da. «Gure eŕiko eleizea lakorik..., gure eŕiko pelotokiak zuenen aldean amar balio yok...» eta ondaŕutaŕak ba'dira..... «Ondaŕu'n lango kai eta itxas basteŕik iñun bez...» Nor da zuen artean txikitan eta... anditan be onango eztabaidarik izan ez dabenik?...

Eta onek zer adirazten dau?... Bakoitzak bere eŕiaganako maitasuna amaren ugatzagaz edaten dabela, Yaungoikoa'k geure biotzean ereindako maitasuna dala. Ba'dakit, Ondaŕu'taŕok onetan ez zariela azkenengoak, eta ondo egiten dozue, iñor ezetsi barik zeuena maitetuteaz. Seme zintsoak bere ama maitazen daben lez, eŕitar zintsoak bere eŕia maitatu bear dau. Eta zeuen etxeak zar ala baŕiak, txiro nai andiki usaiñekoak izan, zuen guraso ta asaben, maitasun, poztasun, samintasun eta otoitzen ziñaldari izan diralako, biotzez maite dozuez. Zeuen ortu luŕak, asaben izerdiagaz narotutako luŕak, maite dozuez. Zuen Eleiza edeŕa biotzeko samintasunen, eta kistartasun zintsoaren ziñaldaŕi izan dana maite dozue. Maitatu eŕiko txaide ta enparantzak, maitatu zeuen itxasoa, ainbeste poz eta ainbeste samintasunen ituŕi izan yatsuen itxaso eder maitagaŕi ta bildurgaŕia, bertako urak zeuen asaba, seme, guraso ta anaien izerdi ta malkoakaz, gazituta dagola esan leike-ta, eta batez be, zeuen Ama laztan Antigua'koa, atsekabeetan zuen poza, zuen malkoen legortzal̄e eta zeuen Zaindari ta Ama dalako, biotzeko samurtasunik andienaz maite dozue. Orixe da norbere eŕia benetan maitatzea!

Baiña eginbear bako maitasunik ez da. Eŕi-maitasunak gure asabak maite ebena maitatzera garoez, eurek itxi euskuezan gorputz eta gogo-ondasunak, maitasunez zaindu ta ugaritzera; euren oitura onai eutsitera, eta euren egite onak, begien auŕean beti daukozuen itxaso edeŕeko izpil̄u oŕetan ikusi ta antzartutera.

Orixe dala-ta, zuen eŕi-arazoak atonduteko agintaritzat aututen diranei, lengo onari eutsi eta oingo onagaz alkartuteko eskatzen yake, eŕiaren egizko auŕerapenerako lan egin daiela, eŕitaŕen zoriona geitu ta ugaritu daiela, eta asabakandik artu dituguzan gogo-ondasunak, lenen begiz yo, ardurarik andienaz zaindu eta etsai guztiei kementsu arpegi emon daioela.

## Izkuntza ta abeŕia

Eta ziñestea alde batera itxi ezkero zer da eŕi baten ondasunik bikaiñena?... Eŕi baten ondasunik bikaiñena, luŕekoen artean, ezpai barik bere izkuntza da. Eta Izkuntza da benetan guztion ondasuna, geu bizi ga-

reanona, eta gure antxiñako asabena, eta baita lur onetan biziko diran ondorengoei itxi geikion ilburukorik maitagaŕiena. Eta yakiña! euskaldunontzat gure euskera maitagaŕia.

Euskerearen bitartez gure asabakazko artu-emonari eutsiten dautsegu euskeraren bitartez, euren biotzeko maitasunez berotutako itz berberakaz sendi ta gizarteko artu emon, pozaldi ta atsekabeetan gure biotzak alkartzen dira. Euskera gure biotzaren taupadea, eta gure gogoaren arnasa da, gure asabakaz bat egiten gaituan uŕezko aria da. Amaren laztan artean ikasi ditugun lenengo itzak, euskeraz izan dira, euskeraz gure lenengo otoitz samuŕak zuzendu dautsoguz Yaungoikoa'ri eta euskeraz egin bear dogu gure artu-emonetan, ama baten seme lez maitasunean bizita, geure asaben duin eta eŕiko seme zintso izan gaitezan.

Baiña gizonak, apur eta geitxoago be geurekoiak izan oi gara, aŕoxkoak be bai bear baiño geiago, eta guztiok dakizue maitasunak gogoak alkartzen dituan lez aŕokeriak banandu egiten dituala. Izuŕi onek ikutzen dauskunean, auzoko ogiari gozoago ereizten dautsogu, beste izkuntza batzuri *eleganteago*, besteen yolasak auŕeratuagotzat, eta eŕitaŕak baiño burua gorago agertu gurarik aizez beteta, norbere eŕian modatik igarota dagola-ta, maitasuna galtzen asten gara, eta oŕetara eldu ezkero, gure eŕian bizi aŕen, erbesteko lez agertzen gara. Gurasoakaz bizi aŕen, semeak maitasunik ezpadautse, bere etxean ostatuz dagola begiranduten yakun antzera, eŕian bizi aŕen, asaben gogoa bere biotzean ez daroana erbesteko lez agertuko da.

Beti be bai, baiña aŕisku oŕetan eŕiak aurkitzen diranean, eŕiko seme yatoŕak, bere maitasunean geien gailendu diranak, seme ospetsuak goratu, txalotu, eta enparauen eredu ta yaŕaibidetzat anaien auŕean ipintea, eginbear txalogaŕi bat baiño ez da. Ondaŕu'ko Udal argiak ba, bertoko seme ospetsu, eleiz-gizon onbidetsu eta euskel-idazle eta euskelzale bikain, Agiŕe'tar Domeka yauna, goratu eta eredutzat ipintea erabag dabenean, ondaŕutar eta euskeldun guztion txaloak irabazi ditu.

Eta omen onetan bere euskelzaletasunatzaz zerbait esateko eskatu daustazuen ezkero, emen naukozue neuk al dodana egiteko gertu. Gorbea mendiaren oiñean yaioa naz ta, Agiŕe yaunaren euskelkaletasuna goraltzeko itzalditxo onetan, gura neuken beste gatz, itxas-ertzekoak euki oi daben gatza, ezin agertu neikela badakit, baiña ez daukanak daukanari eskatzea egoki da-ta, ondaŕutar bateŕi eskatuko dautsot. Eta ondaŕutar ori ez da edozein izango, goratu gura dogun Agiŕe yaun agurgaŕia baiño. Nire itz guztiakaz baiño, bere itzakaz obeto agertuko dautzuet bere euskelzaletasuna zintso ta sakonena izan zala, bere ta gure euskera maitagaŕia, bere biotzaren-biotz eta odolaren-odol izan zala. Zuzen nagoan ala ez berak esango dautzue.

## Agiŕe yauna

Bizi guztian biŕitan bakaŕik ikusi neban, eta bietan euskeraren aldez gogoz lanean. Lenen 1916'ko Yoŕal̄a-2'n,Bilbao'ko *Campos Eliseos* antzokian egin zan euskera aldezko batzar baten itzaldi bat irakurten, eta bigaŕen Oñati'ko Eusko Ikaskuntzako Batzar ospetsuan euskeraren aldezko lanetan maipuruko. Bigaŕen aldi onetan gexo astunagaz, asko yausita zegoan, baiña euskeraren aldez lan egiteko, maitasunak indarbaŕitzen ebala esan zeikean. Bere itzaldi, autu, artu-emon eta yoan-etoŕi guztietan alako *zer* bat agertzen eban, ikusten eben guztiei auxe esan gura eutsona:« Gizon au, utsik egin barik, otzan, apal, onbidetsu, eta yakituna da». Ni beintzat eretxi oŕegaz etxeratu nintzan.

Baiña batez be, euskelzaletasuna, alde guztietatik erion. *Axe bai zala egiz euskalzale bikain eta euskelzale eredu !* Entzun daiogun berari. 1898'ko Agoŕa'ren 18'n Zestua'ko Euskal-Jaietan, Gipuzkoa'ko aldundiaren auŕean egin eban eleiz-itzaldian itz oneik esan zituan : « Ni Euskalduna naiz, lau aldietatik euskalduna, euskalduna biotz ta arimatik, euskeraren maitasunean, beste bati goragoko mal̄an jartzan utziko eztiotan euskalduna»..... «Neretzat euskara, egaztiarentzat aizea bezela da, gizonarentzat arnasa bezela»... (26'n ing.) Baiña Agiŕe yauna, biotz-biotzetik esan zituan itz oneik, bere egite ta bizitza guztian egiztu bazituan, ez zan izan euskera bere yaiotzetiko izkuntza izan zalako bakaŕik. Bere euskaltzaletasunak bein baiño geiagotan esan eban lez, gorago be sustraiak izan zituan. Eleiz gizon zanez, be, euskera maite-maite eban, euskereaz anaitasunik edeŕenean, kistar ziñestea, izketa garbia eta euzkeldun yatoŕen ekandu garbiak alkartuta ikusten zitualako be bai.

Itz labur oŕeitan, argiro ikusi geinke, Agiŕe yauna ren euskalzeletasunak, bere izate eta biotz baŕuan sustrai sakonak zituala. Ondo ekian, nonbait, andik iru urtera, XIII'n Leon Doipuruak, Boemia'tar Gotzaiñei zuzendu eutsen Idazkian esan eban lez, «Gure izatean baŕuan sartuta daukogu, asabakandik artutako izkuntza, maitatu ta zaindu nai izatea». (1901'ko Dagonil̄a-20'n) (1).

Norbere izkuntza maitatzea ba, Eleizak irakasten dauskunez, ez da gizonak ezaŕitako eginbeaŕa, geure baŕuan Yaungoikoa'k berak, geure izatearen baŕen-beŕenean ezaŕi daben lege bat baiño. Eta Yaungoikoa'k gure izatearen mamiñean ipiñi dituan legeak, gizon izan nai daben gizonak bete egin bear ditu. eta ori egiten ez dabena, naiz yakitun, naiz aberatsa izan, bere zaiñetan daroan odolaren duin ez da egundo izango.

Norbere amak laztan artean irakatsitako maitasun-izkuntza, edozein dala, maite ez dabenak, ezin leike maitetu bere yatoŕia, bere abizenak, bere asabak, bere eŕia ezta egizko maitasunaz, bere ama be.....

---

(1) « Insitum enim natura est acceptam a proavis linguam amari tuerique velle». (XIII Leon-1901-Dagon-20'n)

Len esan dogunez, Agiŕe yaunaren euskeraganako maitasunak, bere eŕiaren maitasunean eta eŕi onen ziñeste sutsuaren maitasunean sustraiak zituan. Kardaberaz agurgaŕiak esan ebana gogoan eukon nonbait: «Euskerak burua yasotea Yaungoikoa'k nai du ». Euskera galdu ezkero, beragaz daroaz saŕitan, itz garbiak, ekandu onak, eta zenbat bider ziñestea bera be bai. Geure begiz ikusten dogu euskeldun yator eta zintsoenak aurkitzeko, euskera zintso zaintzen dabenen artera yo bear dala. Izan be, eŕi batek bere izkuntza galtzen dabenean, bere mendu ona ta gogoa be galdu egiten dabela esan lei, eta Grentrup yakintsuak diñon lez, «bere gogo batasuna galtzen dau ». Eta idazle berak diño, « Abenda eŕi batek, zabarkeriz eta ardura barik bere argaltze ta galtzea ikusten dabenean, Yaunagandik artutako ondasunagaz geiago irabazi ez eban Goizparkiko moŕoi antzeko egiten da, orixe dala-ta beste barik ugazabak galtze baŕiakaz zigortu ebanen antzeko». *(Muttersprache und Religion*, 78, ing. Munster 1832) Illumirare-Bagil̄a 1934. Orixe dala-ta Eleizak beti eta batez be gaur egunean gogor agintzen dau, eŕi bakoitzari bere izkuntzan zeruko bidea irakatsi bear yakola, eta ori galerazo gura dabenen indarkerien aurka kementsu bere asaŕea agertzen dau, oin urte bi. Tirol'en kistar-Ikasbidea italeraz irakasteko agindua Italia'ko agintariak emon ebenean, agindu aren aurka XI'n Pio agurgaŕiak agertu eban lez. Eta ondiño il̄abete ez dala Trieste Gotzain Fogar agurgaŕiak berberorixe egin dau. Orixe dala-ta, Bizkaian oin ogeta bi urte, *Euskeldunei Euskeraz*, zeruko bidea irakasteko *Yaungoiko zale* yaupari Bazkuna sortu zanean, bereala Agiŕe yauna baz kidetu zan. Gure eŕiak ziñestea unetaraiño sartuta dauko Yaunari eskeŕak, eta bertan sustaŕak dituan euskereagaz oso ederto alkartzen da, besete eŕi batzuetan bertakoagaz alkrtzen dan legez edo obeto.

## Agiŕe yaun ondaŕutar ospetsua

euskelzale eta zegaitik euskelzale izan zan naiko argi ikusi dogu. Ez zan izan gaur peŕetxikoak baiño ugariago basteŕetan azaltzen diran «euskelzale» askoren antzekoa. *Miñez*, «ni euskelzale naz» edozeiñek esaten dau, eta «siento mucho desconocer la lengua de mi país» be bai, baiña itzok egizkoak izan diran ala ez eurak esango dautzue. *Miñez* diñoena miñagaz guzurtetan dabe. Euren ezpaiñetatik euskerarik gitxi urtengo dau, ikasteko alegiñak, ogetik yaiki gura ez daben alpeŕaren antzekoak dira, ez dozuez euskerazko idaztiagaz ikusiko, ez dabe ezer euskeraz irakuŕi gura, eta idatzi be euskeldunei euskeraz egundo ez dautse egingo. Oŕen euskelzaletasuna itxasoan egundo oiñik ipiñi gura ez eta «ni aŕantzale naz» esaten dabenen itzen antzekoa da. Baŕiketa utsa....

Egizko euskelzaletasuna, euskeraz nai non eta beti euskeldunakaz egitean dago, euskera biotzean eroatean, biotzean dagonak agotik urteten

dauta; euskeraz edozertako gaiak azaltzen alegintzean, euskera garbitu, txukundu, eta auntzoŕiak arte zaŕari lez, ezaŕi yakozan ostro kaltegaŕietatik garbitzean; euskera bere etsaiakandik aldeztutean; euskeraren eskubideak kementsu aldeztutean; euskera baseŕitar ala aŕantzal̄e gixajoarentzat bakaŕik dala esan barik, andiki, yakitun, aberats eta, itz baten, euskotar odola zaiñetan daroen guztien artean zabaltzeko alegin egitean. Orixe dagiana da euskaldun eredu, eta ori egin eban zuen eŕikide bikain Agiŕe yaunak.

Berari itz egiten lagatzeko ordua dala uste dot.

*Lenen, zergaitik galtzen dan euskera esango dausku-Bigaŕen, euskerari sartu yakon goŕiñea zelan osatu bear dogun. Irugaŕen, euskel etsaiak zeintzuk diran. Eta azkenez, euskaldunok orain arte, euskerari ilten lagatzeaz, egin dogun okeŕa, zuzendu ta gorengo mail̄ara yasoteko zer egin bear dogun.*

## Zergaitik galtzen yakun euskerea

Idazpuru onegaz, 1899'n urteko *Euskalzale* Azkue yaun euskelzale bikaiñak argitaldu eban asteroko aldizkingi edeŕean, urte atako 22 ta 23'n zenbakian, Agiŕe yaunak idazlan txukun bat agertu eban itaun oneri erantzuten. Ara berak diñoana: Erdaleŕitaŕakaz gabiltzalako nai ta ez ibil̄i bear da-ta. Oŕegaitik lenengo, eta bigaŕen, geu bere asko erdelzaletu garealako, eta edozein euskeldunagaz ta edozein tokitan erderaz diardugalako euskera zuzen, garbi maitea basteŕeruntz boteaz.»

«Bigaŕengoa da alde mingaŕiena, geure gogozkoa dalako. Geure eskuan legoke euskeraz itz-egitea, gura bagendu; baiña eztogu gura edo eztakit nik zer gertatzen dan, bada erderaz diardugu euskeldun geienok».

«Eztago ikustea baiño, Durango edo Mañarin, Tolosan edo Asteasun, Etxaŕik edo Lakuntzan yaio ta euren gurasoen aotik euskera besterik entzun eztaben gizonak zer egiten daben Iruñan, Donostian edo Bilbon bizi badira: goizetik gabera eztitute lau itz euskeraz esaten. Eztago euskcra ondo ikasten zeintzuk saiatuten diran begiratzea ezpada: lau zoro edo zorotzat begiratuten yakuen eŕitar banakak. Euskera baseŕitarkeritzat dauke ondiño euskeldun askok, eta baseŕitar izate ori ezta gogozko gauzea eŕi andietako gizon aŕotxuentzat.»

«Eta yakiña da: iñoiz nai ta nai ez, euskeraz itz egin bear ba'dabe, euren aotik Aitoŕen izkuntza gozoak erdaldunduak urteten dau; eta zelan diran eurak eŕitxuetako gizonik argienak legez ezagutuak, euren esakerea ona dalakoan, basaŕiko gizon apal zintsoak ikasten ditue eta esaten ditue erderazko itz zakar asko gaizto asko, euskerazko itz eder egokitzat arturik.»

« Bitartean ezagutu daigun danok daukaguzola eŕuak, eta euskera ilten ba'da, geuk il dogula, alperkeriaz, ganorabakokeriz, maite izan eztogulako.»

Idazlan onen bigaŕen atalean, gauza zaŕak onak diranean aintzat artu ta txaŕak ba'dira baztertu, eta euskera garbitzeko lan egin bear dogula-ta, neure soiñekoa daroenai, oar batzuk egiñaz onantxe amaitzen dau: « Gura dabenak asko dagike, egin daike. Gura eztabenak ezer bere ez. Lan apurtxo bat egin ezkero, euskera onean ezin itz egin daben euskaldunik eztago. Lanik egin barik, euskeraz ezer irakuŕi nai ezik, euskera onean yardungo dabenik ezta sortu Salomon baiño yakituri geiagokoa bada bere ».

Ikusten dozuenez Agiŕe yaunak oin ogetamabost urte idatzi ebana, gaur askorentzat be ondo dator. Eŕietan buru izan diranetatik etoŕi dira gaitzak. Osabidea bertatik etoŕi bear dau. Orixe bide zuzen eta bakaŕa.

## Euskereari sartu yakon goŕiñea zalan osatu?

Euskera askok txirotzat dauke, eta euren bizian lau leŕo irakuŕi ez dituen sasi-yakitunak, or dabilkiguz, au ta ori ta bestea, euren antzera, euskel gaietan sasi-yakitun diranentzat esaten. Baiña lurbiran izkuntza gaietan gizonik yakintsuen diranak, euskerearen sakontasun eta aberastasunatzaz esan dituenak gogoan eukitea naiko da, auntzen gaberdiko eztuleri baiño yaramon geiago ez egiteko. Yakitun beste gauza batzuetan ba'leiteke izatea, baiña eztakien gauzetan sartzea yakitunen ezaugaŕi ez dala edonok daki. Entzun daiogun Agiŕe yaunari: « Euskerea aberatsa da, baiña bere abarastasunak toki batean eziturik eztagoz, Euskaleŕi guztian zabaldurik daukaz: batzuk baso zugaztitsuen baŕuan, beste batzuk mendien egaletan, beste batzuk Kantauriko itxasoaren ertzean; Bizkaian legez Gipuzkoan, Gipuzkoan legez Napaŕoan, Napaŕoan legez Franziako anaien artean. Alderdi guztietan sartu yako euskereari goŕiñea; alderdi guztietan dagoz oraindiño euskerearen sustrai onak eta landara mardulak bere bai.Goŕiñea kendu ta sustrai onetik datozen landarak lurbatetik bestera aldatu, ori da guk egin bear doguna. Eztogu erderazko itzik aotan erabiḹi bear, esan gura doguna euskerazko itzakaz esan daikegunean ».

« ¿ Baŕiak dirala nik dakardazan itzak esango daustazu, irakurlea? Ez naz baŕi zalea, ta itz baŕi asko eztot esango: yatoŕi oneko itz zaŕak izango dira geienak, zuk lenago entzun ezaŕen; bada Euskeleŕiko itz guztiak dakizan euskaldunik eztago nire ustez, Gazteleŕiko danak dakizan gaztelaŕik eztagoan antzera. ¿ Baiña zer baŕiak izanda be? ¿ Eztabiz egunero Gaztelako izkuntzan itz baŕiak ikasten? Da, ¿ zegaitik ikasi bear eztira geureak? ¿ Ainbeste euskaldun zintsori ezteutsegu geuk buruetan sartu, zer esan gura daben, *excelentea*, *admirablea*, *infinitamente pode-*

*rosoa, sabioa, principioa ta fiña,* ta beste olango erderakada ta mordoľokeri asko? ¿ Eta euskerea erakusteařen erderea baseřitařen buruan sartzeko aiña lan eztogu egingo? ¡ Ona dago beraz gure eřizaletasuna!» Auxe diño KRESALA idazti txukunaren asieran.

Beraz Agiře yauna, garbizale ta bere neuřian bařizale izan zan, *bařikeři* zale ez baiña.

Egia esateko, gitxi yakin eta asko dakiala uste dabenentzat dana da bařì, baiña orixe berori gertatzen yako mutikoari lenengoz eskolara doanean, ....izki edo *letra* guztiak bařì egiten yakoz!

Maite dogun gauzea albait garbi ta txukunen ipinten alegintzen gara, eta ori ez egitea maitasunik ez dogun ezaugařì da, eta maitasun barik euskera aldez zer?... Maite ebalako itz oneikaz yařaitzen dau: «Nik geure euskera maite-maitea dan baiño be geiagoan bigun eta irakurgařia egin gure neuke....» Geuk beste ainbeste egin daigun eta Agiře Yaunaren yařaitzaľe zintsoak izango gara.

## Euskera etsaiak zeintsuk diran eta guztiei erantzun egokia

Atal oneri KRESALA'ko *Bedar Txařak* irakurburutzat dauken azalburuan erantzuten dautso, eta egoki erantzun be. Eztabaida onetan euskeraren etsaı lez, iru gizon sartzen ditu. *Ezpataduna,* Izkiľoduna, *Oial saltzaľea* ta *Indianoa*. Nire ustez, euskeraren iru etsai txařenak sartu gura zituan: *Indarkeria, diruzalekeria,* eta zořì aberastuaren *ezyakin eta ařokeria* Indianoan.

Euskeraren aldez Ařanondoko Itsasgizon begikoa, irurak batera baiño sentzun geiago agertzen dabena.

Nasa gaiñean zutinik, ondo yantziriko bost gizon egozan alkařegaz autuan, eguzki epela artuaz batera. Euren artean Itxasgizona.

« Gure Itxasgizona bekoki baltz samařekoa zan, itz latzekoa batzuetan, biotzean eukan guztia eřaz kanpora botatzen ekian gizona, edozeiñi egi andiak esaten eutsazana, bear zanean; baiña arima leiñargi ta onekoa. Asaře zalea izan ez ařen, Euskal-eřiari edo Elizari ikuturen bat iñok egin ezkero, asařetik uřiñean etzan ibilten ».

« Lelo, zio edo gai ořegaitik, au da, Elizari ta Euskal-eřiari bakean ezin itzieutsielako, Itxasgizoňak askoetan miñ emoeutsen beragaz batuten zirean erbestetar edo erbesteturiko batzuei; baiña alan da guztiz be ezeben beragandik iges egiten, maite ebielako, edo dirutsua, Ařanondon guztiz ondo ikusia ta eskubide andikoa zalako ».

« Bost gizonak erderaz ziarduen, baiña nik euskeldunentzat egiten neure lantxo au ta euskeraz ipiñiko dot beren yardun guztia ».

«—Nik eztakit—ziñoan ezpatadunak,—zeiñen auřean egoan azturik

nunbait—ze *deabruzko* eresiak esaten dituen or bafuko astuok euren txakur-izkuntza ofetan.

*Itxasgizonak*, arpegia beingoan ilundurik :

—Etzeunkan ona etofi baiño lenago euskerea ikastea baizen : dana ulertuko zenduan orduan ederto : Nik erbestean ibili izan nazanean, euren izketan itz egin dautsiet erbestetafai, erdizka eta motel bada be. Etxat egundo gogoratu eurak euskeraz itz egin bear daustiela neuri ».

« *Iskiloduna* :—Baiña gizona, zer diñostazu ? Gogoratu eizu alde batetik, zuen euskera ori, erdi izkera eskel zatar bat dala, ta beste aldetik espaiñar guztiak guztiok gastelafez ikastera nai ta eztuak gagozala. Gastelafez bakafik itz egin bear da Españian, da beste izkera danak osaro ta betiko kendu ».

« *Itxasgizonak*, berotuten asita :—Eztiñozu ondo, zalduna. Euskerea antziñetako izkera guraso, eder, mamintsu ta zakona da, atsefitar yakitun askok dakien legez, zuek yakin ez afen. Da gaiñera, ¿ zeiñek esan dautsu zuri, naita naiez ikasi bear dogula guk Gastelako izkuntzea ? Eztiñot gura dabienak ikasi eztaiela, ikasia beti dator ondo ta ; eztiñot gastelar agintariakaz Euskal-efiko gauzen gaiñean zerbait erabagi bear daben euskaldun nagusiak eztabiela ikasi bearko ; baiña euskaldun guztiok ? Zeiñek nai ta naiez itz eragingo dausku gura eztogun eran ? ¿ Zer dala-ta? ¿Zeiñek dauka Españian gu ofetara ipinteko eskubidea ? ¿ Ezkara izan gu geurekofak eta askatuak, geure gurariz eta geuk ipiñiriko zertzeladabatzukaz, Españiaren laguntzat ez mendekotzat yafi giñan artean ? ¿Nok dauka gu makurtuteko eskubidea diñot ostera be ? Indafak ? ¿ Indafa dozue eskubidien iturburua ? Bada orduan ondo egieban Nopoleonek Españia menderatutera etofi zanean. Baina itxi daiogun alde batera euskaldunen geurekortasun da askatasunari. ¿ Zegaitik kendu bear yako gizon, etxadi edo efi bati beren endako itxurea, beren aberastasuna, iñoren on barik ? ¿ Zergaitik kendu bear yaku guri geurea ? ¿ Ezta naikoa norbere lufean daukagun ondasuna ez ezagututea ; ezta naikoa, alpeferi ta nagitasunagaitik izkuntzarik zafen da maitagafiena ez ikastea, afotzak ikasi oi daben legez ; ezta naikoa basterturik eukitea, entzun bere ez gura izatea ; il da lurperatu egin bear da gaiñera ? ¿ Eztozuez zeuek bandera oial da burdin zafak gordetan gertaera gomutagafi on batzuen gomutagafi legez, edo zeuen asabienak diralako beste barik ? Bada, ¿ zegaitik itxi ez guri zuen eta geure asabien izkuntz edefa mendi tartean gordeten ? »

—« *Izkilodunak* : Etzaite asafatu gizona, baiña yakin eikezu, euskarak eztabela ba zuk uste dozun aiña edertasun ».

—«*Itxasgizonak* : ¿Zuk zelan dakizu ori euskerarik ikasi ezpadozu?»

—« *Oial saltzaileak* : Neuk be eztot ikasi, Bilbotafa izanafen, gurasoak ezeusten erakutsita ; baiña eztot damurik be. Euskalefitik kanpora

euskerea ezta ezertarako, ta Euskal-eŕian bertan edozeiñek daki gaur gastelaŕez ».

—« *Itxasgizonak :* Zuk euskerea ezyakiñagaitik damurik ez izatea, mirarituteko ipuiña ezta. Zuek, bilbotaŕok, antxiña galdu zenduen asabien izkera biguna ta antxiñatik zagozie erdaldundurik, eta gaiñera zuretzat, sal-erosketarako ona ez dan gauzea ez da iñoiz be ona izango. ( Zeuk saltzeko gauzea ba'litz, edeŕetakoa dala be laster esango zenduke zuk ). Baiña yakin eikezu, lenengo, saltzalientzat onak ez diran gauzarik asko badagola luŕean, da bigaŕen gure euskera eztaukagula saltzeko. Euskal-eŕian baŕiz edozeiñek itz egiten ba'dautzu erderaz ainbat gaiztoago : neu *dendaria* ba'nitz, ikasi bearko zendukie euskeraz, oialak eta enparauak eskiñika zatozentxuok.

*Indianoak :* Kukuŕuku egitera doian olaŕa legez burua yasota, zudur azpiko bizaŕak kiskurtuaz, guztiz astiro ta benatsu :

—Neuk esan neike iñor baiño obeto, lur asko ikusi ditut eta : euskereak eztau ogia irabazteko *balio.* ( Yo puedo *disir* mejor que nadie, *ha* visto *muchas* tierras : *bascuentze* no vale para ganar pan ).

—Zelan irabazi dozu ba zuk geldotzaŕorek? ¿ Erderaz yardun edeŕen batzuk eginda ? Ezagun dozu.

—Nik neure ogia lan gogoŕean da ondo irabazita daukat.

—Eztiñot ezetz, baiña lanean egiteko eztot uste euskereak kalterik egingo eutsunik, eta erdereak indar andirik emongo eutsunik bez ». (Kresala-94-97'n ing.)

## Ara emen, Agiŕe yaunak

indaŕa dala, aŕokeria dala, txindi-zalekeria ta ezyakiña dala-ta, euskeraren aurkaka guztiei emoten dautsen erantzun egokia.

Goazen azkenengo atalera. Ba'dira euskeraren etsaien artean, gaxorik ia ilean dagoala-ta, Unamuno baŕegaŕiagaz, il bear dabela esan daroenak, eta eleiz-progu alagalako batzuk egin bear yakozala esaten dabenak. Kirtenkeri au oin ogetaka urteak dirala esana da. Bidegabekeri oŕeri, Zaragoza'ko « El Eco de la Cruz » deritxon aldizkingitxoak, erantzun egokia emon eutson, eta datoŕen tokitik datoŕelako, emen ipintea egoki deritxot:

Ara erderaz emon eutson erantzuna:

«Gura dozu ipuin bat edestutea?»

Ara, ba. Nire eŕian gizon gaizto gaizto bat bizi zan. Birao aiñen eta itz zakaŕak ituŕi batetik bere ao zikiñetik urteten eben. Egun baten, Yaungoikoa'ren aurka yarki esaten asartu zan: «Yaungoikoa ain altsua ba'da, zer dala-ta ez nau, zigortzen, miña aŕatuta? Une atatik itz barik geldítu zan, itz egin gura ebanean ots zerbait egiten eban, baiña ezer be ez yakon ulertzen, kirtenkeriak bakaŕik aituten yakozan.» Eta aldizki erdelduneko

itzak dakarzan lez aitatuko dodaz: «Asi hace ese señor, solo se entienden claro sus disparates.»

¿Ha sido inconveniente el vascuence para que las provincias sean las más adelantadas de España? Y si no lo ha sido en el pasado, ¿cómo lo será en el porvenir? Dicen que el vascuence es corto, tan corto que con él no se puede blasfemar de Dios. Tal vez el señor Unamuno encuentre despreciable una lengua que no sirve ni aun para blasfemar, sin fijarse en que a eso, tal vez, deba ese pueblo la pureza de sus costumbres, la firmeza de su moral y la virilidad de su raza» (El Mago tom. I. 18 ta 19'n ing.)

Oin ikusi daigun, Agiŕe yaunak ori diñoenai, Bilbao'ko *Camgos Eliseos* antzokian 1916'n egin eban itzaldian emoten dautsen erantzun bikaiña: (1)

«Euskerea gaxorik, ia il̃ean dagola. Gaixorik bai, ia il̃ean ez Yaungoikoa'ri eskeŕak. Baiña gaxoŕik baldin badago ¿zein ezta gaxoaren eŕuki? ¿Nola eztegu euskera babestu bear? ¿Noizko ditugu sendagaŕiak? ¿Zertan daude eskubideko yakintsuak? ¿Zer egiten dute zaintzal̃e izeneko gizon oiek? ¿Nolakoa da batez ere, gaixoa sendatu beaŕean, geiago zauritu nai duan sendagil̃ea? ¿Nolakoa da bere ustez il̃ zorian dagona yo ta zapaldu nai lukean sen agintaria?»

«¡O! Benetan aŕitzekoa da gure izkuntzari erbesteko gizon maltzuŕok egin nai diotena; baiño ¡ai! askozaz aŕigaŕiagoa da geuk euskaldunok, egin dioguna; bada geuk yardun degu geienbat euskeraren kaltean, geuk iraindu degu erbestetaŕak baiño ere geiago, geuk bota degu geure ezpaiñetatik, geuk yaurti degu geure urietatik baso baztaŕera, izuŕiz kutsutua dagoanaren gisa. Bai auzoetako mintzo apaiñak ezagutzean, gure izkuntza naŕas ta baldaŕa iruditu zaigu ta Euskaleŕiko semeak euskeraz mintzatzen ¡lotsatu egin gara! Ori egin oi dute, beren gurasoak goizetik gaubera aberastu diran edo zerbait ikasi duten ume dol̃oŕak. Geurea da ba eŕua, geurea obenik andiena.»

**Euskeldunak, nere anaiak,**

ernaitu gaitezen ta bide beŕiak artu ditzagun. Nik ba dakit ederzaleak zeratela ta edonungo edeŕari abegi ona egiten dakizutela. Ordu onean izan dedila; baiño etzazutela oŕegaitik euskera iñon ukatu, etzazutela besteak baiño gutxiagotzat euki. Euskaleŕian yaio zeraten guztiok, andiki ta beartsu, andikiak batez ere eŕi ta erbestean etxe baŕuan eta enparantzaren erdian ¡Yaungoikoagatik! euskeraz itz egin zazute. ¡O euskera kutun nere mintzoa! Etzera zu iñoren lotsagaŕi. Iraunkoŕa zera Ernioko gal̃uŕak aiña; lerdena zera, Anboto erpiñen irudira; garbia zera Aitzgoŕiko elur zuria beste, liraiña zera Aralarko Aingeruaren gisa, nerea zera eta

(1) 1916'ko Yoŕal̃a-15'ko «Euskaleŕiaren Alde» n argitaldu zan.

maite zaitut. Zure kopeta zabalean antxiñako yatoŕi onaren kera ta kutsua dakuskizu, zure sorbaldetan izkuntza gurasoen soiñeko apaiña daramazu.

«Naiz ta gaur gure mendi basteŕean apala egon, zure bizitza luzean alderdi askotan on egiña zera. Zuk eman diezu beste mintzo askori, zure izatearen mendua, zure argiaren izpia, zure suaren txingaŕa; zure odolaren goŕiunea. Izkuntza beŕi oiek aŕo ta gangar badabiltza ere. beti zure zoŕetan egon bearko dute ¡O euskera maitagaŕia! Zuri nai dizut eresi. Oso aurtxoa nintzala, oraindik seaskatxoan nengoala. amaren laztanaren aoz sartu ziñan nere biotzean eta ordutik auŕera nere biotzean zauzkat. Etzera zu neretzat egundaiño izan txiro ta itxusi; zu zera neretzat izkuntzarik gozo, samur, guri, mamintsu ta zoragaŕiena. Oraindik ezea zaude, oraindik kemena badezu, oraindik lore beŕiak eman bear dituzu. Gure animetan dago ta gure animetatik aterako degu zure azia; geuk ereingo zaitugu zoro ta zelai, ibar ta mendi, egi ta baso, lur guztietan, erneko da oparo zure landara beŕia; gure izerdiz ta bear bada gure odolez narotuko degu, ta geuk azalduko zaitugu, azkenez, beste izkuntzen erdira onela esanaz ara emen euskera: ikusi zazute zein mardula dagon, begira zazute zein egoki apaindua yaŕi degun.»

Ori egin ezik, ezkiñake seme onak izango.

¡Gora zu, nere mintzo zaŕa, gora euskera maitagaŕia!

Eta gure lanean diardugula iñok ezer esan eta ixil̄ik egoteko esango ba'leuskigu, ara Agiŕe yaunak erakusten dauskun erantzuna. Len aitatu dogun itzaldian bertan. «Agindu ori da arkaitz gaiñean dagon aŕanoak, aŕanoa dala ta beste gabe baso itzaleko eŕetxiñolaŕi esango balío bezela: «Ixo, utzi zazu bein zure yarduna, ixildu zaite». ¿Ixildu nadil̄a?—erantzun dezaioke txoriak.—¡O! ezingo naz iñola ixildu; berezkoa det nere txio yotzea, eŕekarteko ituŕiak beren murmuŕa, zelaietako loreak bere usaia berezkoa duten antzera; kendu zadazu nere bizitza, baiño ez nere mintzoa, bada neri dagokidan txio ezti gabe, ni ez naiz eŕetxiñol». Era beran esan dezakegu euskaleŕitaŕok; yakin zazute agintariak: gure mingañera euskera berez datorkigu, euskalduna euskera gabe ezta euskaldun ta euskaldun izatea ezingo digu iñork debekatu».

Ara emen ondaŕutar maiteak, zuen eŕitar, Agiŕe yaunaren, euskelzaletasun samur, sutsu, kementsu, eragikoŕa zelanbait azalduta.

Idazle bikain eta bardingabearen goralbenez eraldu dituzuen yai oneitan, erabagi bat artu bear dozue, zuen ziñeste ta euskerea, biotz baŕendik maitatu eta bere antzera, maitasun ori egitez agertzeko erabagía.

Euskaltzaletasuna ziñesteagaz beti alkartuta ibil̄i da ta auŕerantzean be, alantxe izan daiten ezaiteze aztu antxiñako esakunaz «Euskeldun, fededun». Ondasun bion aldez, guztiok batera—Ekin eta yaŕai!

MANTEROLA'TAR Gabirel